



4.- UNITATEA: GURE ALTXORRA

1. EZAGUTZAK ASTINDUZ

Aurreko unitatean herriak jasaten zituen eraso ugariak zirela eta XVIII. mendean kokapen babesago batera lekualdatzeko izan zituzten egitasmoak ezagutu genituen. Baita herriak urteen poderioan izan duen biztanleen garapena ere.

Bestalde, herriko hainbat kultura esparru aztertzeko, eta horien barruan hainbat jairen eta ohituren nondik norakoa ezagutzeko parada ere izan genuen.

Herria beste kokapen babesago batean egiteko egitasmoaren diseinuan asko aurreratu zen arren, azkenean ez zuten gauzatu eta herria zegoen lekuan geratu zen.

Beraz, suntsitutako herria berreraiki behar izan zuten. Berreraiketa urtetan luzatu zen, eta XX. mendeko lehen hamarkadetan oraindik berreraiki gabeko etxeen aurriak ikus zitezkeen herrian.

Urte haietan aurrerapen handiak gertatu ziren, garraioan eta komunikabideetan, esaterako. Beraz, herrian azpiegitura berriak egin behar izan ziren. Europa osoan gertatu zen antzera, gure herrian ere aldaketa sakonak izan ziren.

Historian aurrera eginez, hortaz, XIX. eta XX. mende hasieran buruhauste franko eman zituen Oiartzun ibaiak. Europatik eta zetorren garapen garai berriari jarraiki, trenbideak eta errepide berriak egin behar izan zituzten. Horretarako, ibaiari handik eta hemendik lurrak kendu eta ibai bazterrak lehortu zizkioten, eta horrek bere ondorioak izan zituen. Uholde bortitzak jasan zituen herriak sarri.

Auzi horrek emango dio sarrera unitate honi.

Hala ere, aurreko unitateetan egin bezala, lehenik eta behin ikasleei landu nahi diren gaietan girotzeko hainbat jarduera proposatuko dizkiegu hausnarketarako.

Orain arte herriaren gainean ikasitakoan eta herriaz dugun pertzepzioan sakontzea proposatu nahiko genizueke. Horretarako, herriaren deskribapen testu bat egitea proposatuko diogu ikasleari.

Aurretik, adjektibo zerrenda bat eskainiko diogu. Horietatik herria deskribatzeko

zein zaizkion baliagarri aukeratu beharko du lehenik. Nahi izanez gero, emandako zerrenda osa dezakegu denen artean adjektibo gehiago gehituz.

JARDUERA1: Ezabatu, zure ustez, herriari ez dagozkion adjektiboak:

euritsua, lehorra, berdea, menditsua, hezea, jendetsua, kutsatua, zaratatsua, iluna, argia, garbia, aberatsa, industrialia, lasaia, alai, kirolzalea, modernoa, zaharra, naturala, koloretsua, eguzkitsua, kirolaria, basotsua, atsegina.

Adjektiboak aukeratu dituztenean, ikasleei eska diezaiekegu aukeraketa horren zergatia azaltzeko. Beharbada ez da adostasunik egongo aukeratutakoen eta baztertutakoen artean. Aldekoen eta kontrakoen arteko argudio elkartrukea sustatu dezakegu. Ez da beharrezkoa adostasunetara iristea; izan ere, norberak, bizi duen inguruaren eta ezagutzen duenaren arabera, herriaren pertzepzio desberdina izan baitezake. Balio handiena bakoitzak bere aukera arrazoien eta argudioen bidez defendatzeari eman beharko genioke.

Adjektiboak gauzak deskribatzeko balio dute, batik bat. Horregatik, interesgarria gerta liteke hurrengo jarduera egin aurretik ahoz hainbat deskribapen egitea trebatzeko. Deskribapen horiek edozeren gainekoak izan litezke. Lana errazte aldera eta ikasleek adjektiboen bilduma aberaste aldera, hainbat adjektiborekin osatutako zerrenda ipin dezakegu gelan ikasleek deskribapenak egin behar dituztenean eskura izan ditzaten eta haien gaitasuna aberasten joan dadin.

Jarduera egiterakoan aurreko ariketan aukeratu dituzten adjektibo guztiak erabiltzeko eskatuko diegu. Lan horretan hasi aurretik, kontuan izan beharko dute testuaren antolaketa, deskribapenaren haria, eta abar.

Bakoitzak bere testua egin lezake edo bi edo hiru laguneko taldean egin dezakete. Horretarako, aldez aurretik, adjektibo zerrendak bateratu eta testua adostu beharko dute.

Beste aukera bat izan liteke testuak amaitzen dituztenean elkarri trukatzea eta batek besteari testua aberasteko proposamenak egitea.

JARDUERA2: Osa ezazu herriari buruzko azalpen testua aukeratu dituzun ahalik eta adjektibo gehienak erabiliz.

Unitate honetan, besteak beste, herriko mendiak, ibaiak, errekek, parkeak eta



inguru naturalarekin zerikusia dutenak landuko ditugu.

Lehenago, ikasleak horien gainean duen ezagutzan arakutzen ahalegindu gaitzke. Horretako, bakoitzari, ezagutzen dituenak izendatzeko eska diezaiokegu. Ondoren, ikasle guztien artean “gelakoek ezagutzen ditugun herriko mendien, erreken eta ibaien izenen zerrenda” osa dezakegu. Izenaren ekarpena egin duenari non dagoen adierazteko eska geniezaioke, eta nahi izanez gero herriko mapan koka genezake.

JARDUERA3: Ipin ezagutzen dituzun herriko mendien izenak:

JARDUERA4: Hemen errekenak eta ibaienak:

Herrian baditugu hainbat parke. Liburuxkan, jarraian, herriko hiru parkeren argazkiak dituzue. Nahi izanez gero izena adierazteaz gain, parkean izan direnei non dagoen, bertan zer dagoen, gustukoa duten eta abar azaltzeko eska diezaikegu.

JARDUERA5: Zein auzotan daude parke hauek?

Koadernoko 3. orrialdea..

2. URAK BERE BIDEA EGITEN DU

Oiartzun ibaiak ez du beti gaur ezagutzen dugun ibilbidea egin.

Ibaia, gaur egun, Papelerak hartzen dituen hainbat eremutan zehar igarotzen zen. Ibai ertzetik herriraino, Ugarritzako zumardi ederra zegoen. Ezagutzen dugun gure garaiko Zumarditik oso desberdina: askoz handiagoa eta zuhaitz ederrez betea.

Zumardi hari lehen murrizpena 1845ean egin zioten, Lihoetako fabrika edo Fabrika Handia eraikitzeko.

Urte bete geroago, 1846an, hain zuzen, Andoaindik Irun alderako errepidea eraikitzeko, Zumardia erdi-erdiatik zatitu zuten, Batzokia zegoen parean. Geroago, 1934an, beste errepide batek, Zumardia eta Alaberga artekoak, are eta leku handiago jan zion.

XIX. mendean egindako lan horietako batzuek eragin zuzena izan zuten Oiartzun



ibaiaren ubidean. Hala, errepidearen diseinuak 1846an eta trenbidearenak geroago, 1864an, are eta gehiago estutu zuten ibaiaren ubidea. Horren ondorioz, gero eta maizago gertatzen ziren uholdeak.

Uholde horiek sekulako ondorio larriak sortu zituzten, eta horren ondorioz hainbat heriotza eta kalte material izugarriak izan ziren.

Liburuxkan duzue Laureano Gordónek 1879an margotu zuen akuarela. Bertan, ibaiak lehen egiten zuen ibilbidea antzeman liteke. Ugarritzako zubiaren bestaldera, gaur ibaiak egiten duen ibilbide zuzenaren lekuan, lehen ibaiak meandro bat osatzen zuen, akuarelan garbi ikusten den Fabrika Handiaren aurrealdean zumardi eder bat zegoelarik.

Ikasleak ere marrazkia behatzera gonbidatuko ditugu. Batez ere ibai bazterrean arretaz begiratzeko eskatuko diegu.

JARDUERA1: Behatu marrazkia, ibai ingurua bereziki. Zein elementu zeuden lehen ibai bazterrean?

JARDUERA2: Eta gaur egun, zein elementu daude ibai ertzean?

Urtetan hainbat aldaketa egin ziren ibai bazterrean. Bestalde, urte luzeetan ez zen ibaiaren ubidea dragatu eta ez ziren ibai bazterrak garbitu. Ondorioz, ibaiak zekarren lohi, harri, adar eta bestelako zikinkeriak pilatuz joan ziren. Ibaia sakontasuna galduz zihoan eta ubideak bidea oztopatzen zuten elementuez betetzen ari zenez, estutuz joan zen. Horrek ere bere ondorioak izan zituen.

JARDUERA3: Zein ondorio uste duzu zuela horrek guztiak?

Koadernoko 4. orrialdea.

3. URAK GAINEZKA

Hainbeste oztopo topatu ondoren, ibaiak gainezka egiten zuen maiz eta haren urak herrian eta inguruetan zehar barreiatzen ziren.

Interesgarria iruditu zaigu esaera zaharra gogora ekartzea. Nahi izanez gero, esaera zaharrak zer diren, nork asmatu zituen eta abar landu dezakegu.

JARDUERA1: Ezagutzen al duzu esaera zaharren bat?

Nahi izanez gero, ikasleek aipatzen dituzten esaera zaharren zerrenda osa liteke.

JARDUERA2: Esaera zaharrak dio: “Egiak eta urak beti beren bidea egiten”.

Zer esan nahi ote du horrek?

4. UHOLDEAK

Uholde garrantzitsuenak urte hauetakoak izan ziren: 1915, 1917, 1918, 1921, 1933, 1935 eta 1953.

Urte horietan, Biteri kalean urek altuera hauek hartu zituzten:

1985eko ekainaren 19a	0,65 m
1915eko apirilaren 10a	1,03 m
1917ko irailaren 8a	0,38 m
1932ko abuztuaren 27a	0,70 m
1933ko ekainaren 16a	3,15 m
1933ko urriaren 23a (hildakoak ere izan ziren)	3,65m

Ikus dezakezuen bezala, uholdeak behin eta berriz gertatzeaz gain, oso jarraian gertatzen ziren. Ez da harritzekoa, beraz, uholdeen arazoa herritarren ardura eta kezka gai nagusia bilakatzea, uholde haien ondorioak ez baitziren nolana hikoak izan.

Uholde horietako batean, urak Madalen kaleko etxeetako lehenengo solairuak



metro batez gainditu zituen.

Herriko gainerako kaleetan, urek tranbiak eta kamioiak irauli zituen. Damasa izenez ezaguna zen eskultura hura ere oinarritik bota zuen.

Uholdeen arrazoia ibaia izateaz gain, padura izandakoan ibairatzen ziren errekek ziren, Gaztaño eta Pekin errekek, besteak beste.

Horietako uholde batean, bere bidetik irtendako Pekin erreka urek Lanera lantegiko artilearen garbiketa eta koloreztatzeko erabiltzen zen azido biltegia aurretik eramango zuen beldurraren eraginez, bizilagun batek baino gehiagok ez omen zuen lorik egin Tindategiko azido biltegi horien beldur.

San Migeleko marea bizietan, herriko beheko aldea urak hartzen zuen, eta ura estoldetatik ateratzen zen. Iztietako ibarra eta haren inguruan garai hartan zegoen altzari lantegi bat enborrez beterik zegoen. Mareen eraginez enbor horiek ur gainean gelditzen ziren, neska-mutilen dibertimendu arriskutsurako. Ermitatik Aralar plaza bitarteko lurak ere urpean geratzen ziren.

Horren guztiaren ondorioz, marea bizien garaietan, beheko apaletan eta lurretik gertu zeuden gauzak gorago jasotzen ziren.

Jaso beharreko gauza horien artean etxeko abereak ere bazeuden. Kontuan izan gose urteak zirela haiek, eta tentuz zaindu behar zirela zeuden gutxiak. Biteri kalean Mendiola jatetxean, esaterako, gizendutako zerrikumea etxeko baineran gorde behar izan zuten uretatik libratzeko, eta, bide batez, bainera labainkorrean ezin irtenda zaintzeko.

Liburuxkan duzuen argazkian garbi ikusi ahal izango duzue noraino igo ziren urak gure herriko kaleetan. Argazkian Madalena kalea duzue, 1933ko uholdetan izan zuen itxura agertzen du. Gainera, maetrial osagarrian uholdeei buruzko argazki gehiago dituzue. Haietan herriko hainbat txoko ageri dira, urak noraino iritsi ziren eta zein ondorio utzi zituzten garbi ikusi ahal izango duzue.

JARDUERA1: Ondoko irudiaren gainean marrazten badituzu urek zein maila hartu zuten ikusiko duzu!

Koadernoko 5. orrialdea.

Material osagarria:

Uholdeei buruzko hainbat argazki dituzu:

[Argazkia 1](#)

[Argazkia 2](#)

[Argazkia 3](#)

[Argazkia 4](#)

[Argazkia 5](#)

[Argazkia 6](#)

[Argazkia 7](#)

[Argazkia 8](#)

5. ETA IBAIAREN BIDEA ALDATU ZUTEN

Kalte horiek eragoztearren, eta bereziki 1933ko uholdeak sortutakoak, ibaiaren ubidearen auziari konponbidea jartzea erabaki zen.

Hamar urtez betetzen ez ziren hitz-emate ugarien ondoren, 1943an Oiartzun ibaian zenbait lan burutzen hasi ziren bere ibilbidea aldatzeari begira, horretarako ubidea handituz eta zubiak eraikiz.

Ibaiarentzat diseinatutako bide berria Ugarritzako Zumardiaren lurretatik barrena sartu zen. Ondorioz, ordu arteko Zumardi zabal eta zuhaitzez betetako hura egungo Gamon zumardira mugatu zuten.

Azkenik, 1944an, Oiartzun ibaia ubide berritik sartu zen. Ibaiak osatzen zuen meandro handia zuzendu eta errepidearen ondotik, haren parean, bideratu zuten. Lan horiek, Gerra Zibilean preso hartu zituzten jendeek egin zituzten, Jaizkibelgo eta Aritxulegiko bidea egin zuten gisan.

Hala ere, ubidea desbideratu bazen ere, 1953ko urriaren 14an eta 1954ko abuztuaren 24an uholdeak izan ziren. Bi kasuetan, aterrunerik gabeko euri erasoek sortu zituzten uholdeak.

Eta zer gertatu zen lehortu zuten ubide zaharraren lurrekin?

Ibaia ubideratzeko egindako lanak zirela medio, eta jolas eta aisialdirako gunerik ez



zegoela kontuan izanik, 1945ean Udalak erabaki zuen proiektua idaztea, lehen ibaiak betetzen zuen lekuan haurrentzako parke baterako.

Urte bete geroago, 1946an, proiektua bukatuta zegoen. Bertan, zahar kutsuko pasabide bat, urmael bat, lorategiak, gunere ireki bat, harmailak eta guzti zituen antzezleku txiki bat, babeserako aterpe batzuk, liburutegi bat, komunak eta baita sendagai-kutxa bat ere aurreikusitakoak ziren.

Hala ere, 15 egun geroago, "Papelera Españolak" Udalean zuen ordezkariak haurrentzako parkea bazter utzi eta lur horietan beren langileen onerako osasun lanak egin ahal izateko lurrak hari uztea iradoki zuen.

Papelerak udalean zuen eragina gailendu zen eta bere helburua erdietsi zuten.

Ez zen parkerik egin. Haren lekuan, gaur egun, han egin zituzten Papeleraren eraikuntza gorriek jarraitzen dute.

6. IBAIAN GORA

Oiartzun ibaia Pasaiako portuan itsasoratzen da. Bianditzeko gainetan jaiotzen da, Oieleku eta Penadegiko parajeetan, eta Ergoingo auzoan hartzen ditu Aiako Harriko mendigune granitikoetatik datorren laguntzaile baten urak, Arditurriko errekaenak, hain zuzen. Bestalde, Karrika, Eldotz, Sarobe eta Lintzirin dira beste erreka laguntzaile garrantzitsuak.

Bide ibilbidea oso motza da, 16,6 Km. besterik ez ditu. Ondorioz, Gipuzkoako ibairik motzena da.

Hain zuzen, ibilbide motza izateak ur-laster izaera ematen dio. Horregatik, lohi asko ekartzen du eta horren ondorioz uholde ugari izan ziren herrian, lehenago esan dugun bezala.

Ibaiak izen desberdinak izan ditu historian zehar: Oeaso, Olearso, Olarzo eta azkenik, Oiartzun. Bertandegi izenaz ere ezagutu zen hainbat urtez.

7. ERREKASTOTIK ERREKARA, ERREKATIK IBAIRA

Herriko ibai ezagunena eta garrantzitsuena, zalantzarik gabe, Oiartzun ibaia da. Izan ere, haren inguruan egituratuz joan da herria mendeetan zehar. Haren inguruan pilatuz joan ziren etxeak, auzoak eta lantegiak.

Gaur egun, zentzu handi batean, ibaiak jarraitzen du izaten herriko ardatza. Haren inguruan antolatu ziren lantegi gehienak desagertu dira eta, egun, herritarrentzako aisia espazio erakargarriak eraiki dira, besteak beste Oiartzungo Arditurriko bidegorriarekin bat egiteko bidegorria.

Lantegien desagertzeak ibaia biziberritu du, eta XX. mende ia osoan izan zuen degradazioa hein batean gainditu duela esan genezake. Orain oso ohikoa da bertan bizi diren arrainak eta ahateak ikustea, duela urte batzuk ikusten ziren era guztietako hondakinen lekuan.

Urteen poderioz, beraz, garaiko jendeak hainbat erabilera eman zizkion ibaiari. Lehenik, arrantzarako; nabigatzeko eta nabigazio industria antolatzeko Erdi Aroan; geroago bertako padurak lehortu eta nekazaritzako lurak eskuratzeko; XX. mendean, berriz, herriak jasan zuen industria iraultza partikularra sostengatzeko; eta, ondoren, herritarren aisialdirako gune bihurtu da.

Hala ere, gure mendietan sortzen diren erreka ugariak ez dituzte denek beren urak Oiartzun ibaira isurtzen.

Euskal Herriak bi isurialde dituen gisan, Kantaurikoa eta Mediterraneokoa, gure herriak ere bi isurialde ditu: Oiartzun ibaiko arroa eta Urumea ibaiko arroa. Gure herriko isurialdeen banalerroa, hortaz, Zaria-Aldura mendikatea da.

Urumea ibaiaren ibai-adar nagusiena Añarbeko erreka da, eta han isurtzen ditu bere urak ere Landarbasoko errekek.

Eta Oiartzun arroaren barruan, beste hainbeste erreka bigarren mailako arroak adierazten dira, Zaria-Aldura eta Txoritokieta- Bizarain (San Marko) mendikateetan jaio eta beren ur-emariak Oiartzun ibaira ematen dituztenak, hain zuzen.

Herriko hegoaldeko mugak Gipuzkoa eta Nafarroa bereizten ditu. Normalean, baina, muga horiek ez datoz bat ur-banalerroekin. Horren ondorioz, Urumea eta Añarbe ibaiak Nafarroan jaiotzen dira.

Oiartzun ibaiaren arroa soilik dago oso-osorik Gipuzkoan.



Urumea ibaira isurtzen duten hainbat erreka: Landarbaso, Ozizpe, Intxisu, Arrizabal, Malbazar, Burkondo, Latse, Añarbe eta Suerrin.

Añarbe ibaiak, presatzen den puntura heldu bitartean hainbat erreka eta errekastoren urak jasotzen ditu. Eskuineko aldetik, besteak beste, Egizabal, Errotarrieta, Mintegizarre, Sorgin, Pagoluze, Okilegi eta Luberri. Ezker aldetik, berriz, Altzate eta Burugorri.

Urtegiak ere zenbait ibai-adar jasotzen ditu, guztiak ere eskuinaldetik: Suerrin, Latse, Burkondo, Malbazar, Arrizabal, Mandiola eta Ozizpe.

Oiartzun ibaira isurtzen duten hainbat erreka: Sarobe, Borda, Mizpirazarreta, Antxulo, Masti, Dolina, Aitzondo, Arkiri, Artolata, Segotegi, Mizpirazarreta, Pontika, Zillargillene, Pekin, Gaztañedo, Epela, Olingo.

JARDUERA1: Osatu esaldian falta diren hitzak.

JARDUERA2: Mapari begiratzuz, gure udalerriko errekek ibai berean isurtzen ote dute? Ba ote dago erreken arteko mugarik, zein?

Udalerriak bi isurialde ditu. Isurialdeen banalerroa, berriz, Zaria-Aldura mendikatea da

JARDUERA3: Eta orain aterako al zenuke honen guztiaren ondorioa?

ONDORIOA:

JARDUERA4: Oiartzun ibaia Pasaiko Portuan itsasoratzen da, eta Urumea ibaia...

JARDUERA5: Zer esan nahi du “Erreketako urak ibaira isurtzen dira”?

JARDUERA6: Ezagutzen al duzu udalerriko erreka bat?

JARDUERA7: Oiartzun ibaian ibairatzen dena:

JARDUERA8: Urumea ibaian ibairatzen dena:

Koadernoko 6. orrialdea.



8. AÑARBETIK ETXEKO ITURRIRA

Ez dugu betidanik ura izan etxean. XIX. mendean Udaletxea bizilagunei zerbitzu berriak eskaintzen hasi zen, horien artean ur edangarriaren hornikuntza. Horretarako, herriguneko biztanleak hornitzeko, Sabarako iturritik hartu zen ura. Iturri horretatik, Arrabalean eraikitako labaderoa eta iturria hornitzen ziren.

Uraren hornikuntza etxeetara 1884an hasi zen.

1896an, berriz, Añarbetik etxeetara ura ekartzeko lanak hasi ziren.

Biztanleak ugaritzen ari zirenez, ur edangarriaren hornikuntza eta garbitasunarena arazo larria bilakatu ziren.

1925ean, Bieben ingeniuruaren herriko zabalkuntza plana martxan zegoenez, urrats garrantzitsua eman zen: Eldotzeko ur-ekartzea.

Eldotzeko erreka urak kanalizatu zituzten 1927an. Horretarako, Agustinetan 1.500.000 litroko depositua eraiki zen. Handik, bizilagunei ur edangarria banatzen zitzaien.

Añarbe urtegiak Añarbe Mankomunitatea osatzen duten udalerriei hornitzen die ura, hots: Usurbil, Lasarte, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Pasaia, Lezo, Oiartzun eta gure herriari.

Urtegi horretatik ura 11 kilometroko ubide batetik barrena bideratzen da eta Petritegiko (Astigarraga) edateko uren araztegiraino iristen da. Puntu horretatik, ura hornitzen dien udalerrietarako hainbat ubide-adar irteten dira. Gure herri ingurua hornitzen duena II ubide-adarra da eta Monseko (Donostia) deposituraino iristen da. Bertatik Alaberga, Beraun, eta Aranguren (Oiartzun) deposituak hornitzen dira.

Lau ganbaren bitartez, Alabergako deposituak Lezo, Pasaia, Portua eta Donostiako inguru jakin batzuetara banatzen du ura.

Beraungo depositutik, berriz, Abrin izeneko depositua hornitzen da. Horrek, era berean, Agustinetako auzoko goiko inguruetara eta herriko beste goi inguruetara eramaten du ura, baita Sabara izeneko depositura ere. Sabarakoak San Markora eta Floreagakora eramaten du ura, Zamalbide auzora eta haren inguruko landa-eremura eramateaz gain. Depositu horietan, batetik bestera ura eramateko ponpatu egin behar da.



Arangurengo deposituak herriko behealdeko gainerako auzoak hornitzen ditu. Gure etxeko kanilatik ateratzen den urak zein bide egiten duen ikusteko material osagarrian duten eskema osatu dezakete.

JARDUERA1: Osatu eskema eta urak Añarbetik kanilaraino egiten duen bidea jakingo duzu.

9. HERRIAK IRENTSI DITUEN ERREKAK

Aurreko unitateetan ikusi dugu herria, handituz joan zen heinean, itsasoarenak edo ibaiarenak ziren hainbat lurrez jabetu zela.

Hasieran, errekek bistan zeharkatzen zuten herria. Bigarren unitatea hartzen baduzue, 6. eta 7. orrialdeetan dagoen Jon Graciak egindako irudian ederki ikusi ahal izango duzue zumardiko etxe aurretik igarotzen zen erreka. Era berean, etxe atarietara sartzeko eraikita zituzten zubitxoak ere ikusiko dituzue. Erreka hori Fanderia aldetik zetorren, eta harresiaren amaieran zegoen errotara zihoan.

Gaur egun ere, errekek bere bidea egiten du, Agirre Lehendakaria plazaren eta Zumardiaren azpitik, ordea.

Biteri kalean, Niessen parean, gauza bera gertatu zen. Pontika aldetik zetorren erreka gainetik pasatzeko zubia zegoen. Hori dela eta, urte askotan inguru horri Zubitxo esaten zitzaion.

1842ko ekainaren 16an Udaleko akta liburuan herriko zubiei buruzko dokumentu bitxia jaso zen. Bertan hamalau zubi aipatu eta deskribatzen dira: Ugarritzakoa, Santa Klarakoa, Olaldekoa, Mendiondokoa, Ollokoa, Pontikakoa, Lanternetakoa, Telleriakoa, Portolekoa, Zubitxokoa, Presakoa eta Errota berrietakoa. Deskribatzen lehena, herriko garrantzitsuena zelako, Ugarritzakoa zen.

Egun ere, errekek bere bidea egiten du, gure begietatik ezkutuan, isilik, asfaltoaren azpitik.

Herriaren handitze horretan, hainbat erreka eta erreka gure kale eta etxeen azpian geratu dira lurperaturik.

Itsaso arterako haien bidean herritik egiten zuten ibilbidea estalirik geratzeaz gain, zenbait errekek beren urak isurtzeaz gain, saneamenduko, euri-urak eta gure



etxeetako ur zikinak ere garraiatzen dituzte.

Lan hori egiten duten errekek hauexek dira: Pekin, Gaztaño eta Alaberga.

Pekingo erreka, Beraun aldera doan bidearen zubipean irensten du herriak.

Lur azpian, Pontikako auzoaren azpian, Pekingo erreka bi ubidetan banatzen da. Bata, Gecotor eremutik igarotzen da. Aralar plazan dagoen eraikinaren azpitik igarotzen da eta Morrongilleta kalerantz joaten da, eta handik Biteri kalera abiatzen da. Han, Gaztaño errekearekin bat egiten du. Errekak lur azpitik egiten duen ibilbidearen lekuko gisa, Senidetutako Herrien plazako adreilu gorrizko tximinia luzea dago. Antza, tximinia hori erreka gainean eraikirik dago.

Gaztañoko erreka, Gaztañoko ibarretik dator, eta Pablo Iglesiak kaletik behera Foru plazaren aurretik igaro eta Xenpelar kalearen barrena Biteri kaleraino iristen da Pekin errekearekin bat egitera. Biak bat eginik, Niesseneko plaza zeharkatu eta hainbat eraikinen artetik igaro eta gero, Alfontso XI kaletik barrena doa, azkenean Oiartzun ibairaino iritsi arte. Herri azpitik irteten da Lekuona okindegiaren parean dagoen tuneletik.

Pekin erreka bigarren adarra, berriz, Aralar plazatik Musika plazako izkina baterantz abiatzen da, eta gero, Biteri eta Ikutza Kortsarioa kaleen arteko elkarguneraino doa. Han, Alabergako errekearekin bat egiten du. Biak ubide berrian, Irun kale aldera abiatzen dira eta Oiartzun ibaira isurtzen dituzte urak, herri azpitik irteteko prestatu dieten tuneletik.

Liburuxkan oinarri den irudi bat duzue. Bertan, Bizarain (San Marko) aldetik datozen errekek eta Gaztaino aldetik datozenak dituzue. Pekin erreka Pontikan herriak irensten duen argazkia duzue. Baita herriaren azpitik ibilbidea egin ondoren Oiartzun ibaian itsasoratzen diren puntuenak ere: Lehena Olibeteko eskolaren parean dago eta bestea Iztietan dago, Irun kalearen amaieran.

Ibaia duzue irudiaren erreferentzia. Ikasleei eska diezaiekegu irudiaren gainean herria eraikitzea. Interesgarria litzateke herria, eraikuntzak edo dena delakoak zuzenean ez itsastea irudiaren gainera. Hala, jaso eta azpitik doazen errekek ikus litezke.

Horretarako, zetazko papera erabil dezakezue.

Nahiago baduzue paperezko orri arruntak erabili, nahikoa izango dute orri horiek goiko ertzetik soilik itsastea.

Ez baduzue marrazkia egin nahi, hirugarren unitatean erabili genituen Foru



Aldundiko mapak erabil ditzakezue.

JARDUERA1: Eraiki herria eta errekek ezkutatuko dira!

Koadernoko 6. orrialdea.

10. ERREKETAN GORA

Aztertu dugu ibaiak non amaitzen diren. Baina non sortzen ote dira?

Urek egiten duten kontrako bidea egin beharko dugu. Ibaitek abiatuta lehenik errekekin eta ondoren errekastoeekin topo egingo dugu: Errekastotik erredera, errekatik ibaira.

Eta errekastoen arrastoan mendialdera iritsiko gara. Horixe izango da jarraian aztertuko dugun gaia

11. GURE MENDIAK

Liburuxkan 1875ean, Bigarren karlistadan, Rodriguez Tejerok egindako altzairu-grabatua ikus dezakezue. Han, barruti harresituaren eta ibaiaren artean, Ugarritza Zumardiko zuhaitz mordoa ikus dezakezue, herritarrentzat urte askotan pasealeku eta hizketarako topaleku izan zena, hain justu. Aurrez-aurre, Ugarritzako zubi zaharra eta Lezorako bidea dituzue; ezkerraldean, Santa Teresako mojen komentua; atzeko aldean Bizarain (San Marko); eskuinean, berriz, geroago Biteri kalea bilakatuko zen lehen etxeak (zenbai bakoitiak).

Lehenik eta behin ikasleei grabatua arretaz behatzeko eskatuko diegu: zein elementu identifikatzen dituzten, zer gauza desagertu diren, zerk jarraitzen duen berdin eta abar.

Ondoren, herriaren ingurua, atzealdea, behatzeko eskatuko diegu. Seguruenik berehala ohartuko dira han atzean mendiak daudela.

Gure udalerrriaren lur gehienak mendi aldean daude. Zati bat Aiako Harria Parke Naturalaren barruan dago. Beste zati txiki bat Lau Haizeta Parkean.

Zaria mendia da udalerriko mendirik garaiena, nahiz eta tradizioz Urdaburu dela



pentsatu.

Zaria-Aldura mendikatea Aiako Harritik irteten den mendigune granitikoaren luzapena da.

Ikuspuntu geomorfologiakotik begiratuta erliebe nagusiak dituen zonaldea dugu, bi isurialde definitzen dituen, Añarbeko ibaiarena hegoalderantz (Urumeako arroa) eta Oiartzun ibaiarena ipar-ekialderantz. Zaria mendia agertzen zaigu ur-mugalerro gisa, bera izanik gailur nagusiena. Añarbeko zirkoa ere bertan dago, formazio orografiko berezia, ur-mugalerroaren hegoko mendi-mazelan dagoena. Hona hemen udalerriko hainbat mendi eta haien garaierak:

ZARIA: 630 m.
URDABURU: 595 m.
ALDURA: 551 m.
OTRAITZ: 501 m.
ZUARKAZU: 472 m.
IGANTZI: 460 m.
TXORITOKIETA: 317m.
BIZARAIN: 280 m.
ARRAMENDI: 81 m.

Behaketaren ondoren prest izango dira jarduera egiteko.

Lau esaldi eskaintzen zaizkie. Horietatik egiak direnak markatzeko eskatuko diegu.

JARDUERA1:XXX marraztu zuen grabatua 18XX urtean. Hori ikusirik zer esango zenuke:

*Eremu menditsuan bizi gara.
Eremu lauan bizi gara.
Gure inguruko mendiak altuak dira
Mendixkaz inguraturik gaude*

Baina ezagutzen ote ditugu inguratzen gaituzten mendiak? Ezagunak al zaizkigu haien izenak? Inoiz joan ote gara horietako batera... Jarraian hori guztia aztertzeke proposa geniezaieke ikasleei. Horretarako bi modutan lan egitea proposatzen dizuegu. Lehenik taldeka eta bakarka ondoren.

JARDUERA1: Bildu taldeka eta gure herriko ahalik eta mendi gehienen izenak eta



garaierak biltzen saiatu mapetan, liburuetan, Interneten begiratzuz edo jendeari galdetuz: mendizale asko ditugu-eta herrian!

JARDUERA2: Ederra lagunekin aritzea! Orain bakarrik bete taula.

Koadernoko 7. orrialdea.

Horretarako egokitasunik ikusten baduzue, herriko mapa baten gainean aurreko jardueretan aipatu dituzten errekek eta honetan aurkitutako mendiak kokatzen joan zaitezke.

Bestalde, gure mendietan barrena egin daitezkeen ibilbideak markatu ditzakezue. Horretarako, Turismo bulegoan aurkituko dituzue mendi ibilbideetako foiletoak.

12. ELKARREKIN BIZI GARA: ANIMALIAK

Ez gara gu udalerrian bizi garen bizidun bakarrak. Animaliak eta landareak ere bizi dira gurekin batera. Zalantzarik gabe asko dira bi multzo horietan multzoka daitezkeen bizidunak. Guk, horietako batzuk besterik ez ditugu aipatuko.

Gure udalerrian, bestalde, oso bizidun mota desberdinak aurkituko ditugu herrigunean, mendialdean, ibaietan eta hezeguneetan, basoetan eta abarretan.

Gutako denok, eta gainerako animaliek eta landareek espazio bera partekatzen dugu askotan. Denok dugu denon beharra bizirauteko eta horretan sakontzea proposatu nahiko genizueke. Udalerrian baditugu galtzeko arriskuan dauden hainbat espezie, eta zenbaitetan gure esku ere badago haien alde zerbait gitea.

AGENDA 21-en baitan gai honen ingurukoak sakonago aztertuko dituzue, segur aski, guk haien aipamena besterik ez dugu egin nahi.

Aipamenarekin batera, gainerako bizidunekiko zaintzan eta babesean dugun erantzukizuna birgogoratu nahiko genuke, bide batez, sekula soberan izango ez delakoan.

Gainera, beste animaliak eta landareak zaintzerakoan eta babesterakoan, neurri handi batean, gure buruak zaintzen eta babesten ere ari gara.

JARDUERA1: Zein animalia imajinatzen duzu bizi direla udalerrian?



Udalerria bizilekutzat dutela uste duten animaliak taulan ipintzeko eskatu diezaiekegu. Ahalik eta aberatsena izan dadin, udalerraren egitura kontuan izateko azpimarratu beharko diegu. Horretarako, taula betetzen hasi aurretik denon artean aipatu ditzakegu udalerriko hainbat leku. Gainera, leku horiek nolakoak izango diren, eta ondorioz nortzuk bizi daitezkeen han pentsatzeko eska diezaiekegu.

Norberak taula osatu duenean jarraian eskaintzen dizuegun testua irakur diezaiekegu. Arretaz entzuteko eskatuko diegu. Izan ere, ondoren, imajinatu dutenarekin alderatu beharko baitute.

“Gure udalerriko mapa begiratzen badugu, osatzen duen eremuak hiru zati berezituak dituela ikusi ahal izango dugu. Zati bakoitzak, dituen ezaugarrien arabera, ekosistema desberdinak osatzen ditu, eta, ondorioz, desberdinak izango dira zati horietako bakoitzean aurki ditzakegun bizidunak.

Lehen eremua, udalerraren iparraldean kokatzen dena, lauena eta populatuena da. Han daude gure herriko auzo gehienak, eta bertan bizi gara biztanle gehienak.

Zati honetan aurkituko ditugun animaliak, gehienak, etxeko animalia heziak dira.

Bigarren eremu zatian, mendixkak daude. Han baserrietan eta baserri giroko auzoetan bizi da jendea. Biztanleak ez dira asko.

Inguru horretan aurki ditzakegun animaliak baserriko animaliak dira, gehienbat, baita mendialdetik elikagai bila datozen animalia basatiak ere, azeriak kasu.

Hirugarren eremua goi-mendiko lurrek osatzen dute. Inguru horretan apenas bizi den jenderik. Han bizi diren animaliak animalia basatiak dira, adibidez: basakatua, katajineta, erbinudea, azkonarra, katagorria, muxar grisa, orkatza, basurdea, okila, hontza, kukulumera, saia, bisoi europarra, muturluze piriniarra, amuarraina, aingira, ezkalua, igela, apoa, uhandrea, ur-sugea, martin arrantzalea, kuliska eta ipurtatsa”.

JARDUERA2: Arretaz entzun eta imajinatu duzuna ala den edo ez markatu.

JARDUERA3: Udalerrian bizi direla imajinatu ez dituzun animaliak:

Koadernoko 8. orrialdea.

13. ELKARREKIN BIZI GARA: LANDAREAK

Aipatu ditugu udalerrian bizi diren animalietatik batzuk. Orain beste bizidunei, landareei egingo diegu kasu.

Lehenik eta behin ikasleen pertzepzioak jasoko ditugu.

JARDUERA1: Landaredia aberatsa ote dugu herrian?

Ikasleen usteak bildu ondoren, behaketari ekingo diogu. Gaia oso zabala da eta mugatu egin dugu. Horretarako, herriko landareak lantzeko web orri bat proposatu nahiko genizuke. Orri hori Udalak eta Udal Eskola Batzordeak batera argitaratu zuten: www.errenteriaenverde.net/arboles-plantas/index.htm

Bertan, alde batetik herrian dauden zuhaitzen bilduma bat topatuko duzue. Zuhaitz bakoitzak bere fitxa du haren ezaugarriekin. Beste atal batean zuhaitzak herriko zein lekutan aurki ditzakezuen kontsulta dezakezue.

Beste aldetik, landareak izeneko atala duzue. Bertan, landare bakoitzaren deskribapena, habitata, loraldia, bertute eta erabilerak eta bitxikeriak aurkituko dituzue. Baita sendabelarrak erabiltzeko moduak eta haien propietateak.

Fitxa guztiak, gainera landareei buruzko argazki ederrez horniturik daude.

Orri hori ezagutu eta haren bueltan jira-biraka ibiltzea proposatu nahi dizuegu.

Beraz, hurrengo jarduerari ekiten hasi aurretik, lehenik orrialdea arakatu beharko dute. Arbel digitala erabiltzen baduzue, lehenik, denen artean ikus ditzakezue zuhaitzak, landareak: interesatzen zaizkienak, batzuk adibide gisa eta abar.

JARDUERA2: Zenbat zuhaitz mota daude?

JARDUERA3: Zeintzuk ezagutzen dituzue?

JARDUERA4: Eta zein dira ezagutzen dituzun landareak?

JARDUERA5: Ba al dakizu belar gehiagoren izenik?

Etxe askotan sendabelarrak erabiltzeko ohitura dute. Garai batean asko ziren haiek erabiliz sendatzen ziren eritasun eta gaitzak. Pixkanaka, botiken erabilerak baztertu ditu, eta jakituria handi bat galdu dugu.

Hala ere, baliteke gure ikasleen etxeetan, oraindik, hainbat sendabelar erabiltzea. Ikasle bakoitzari etxean erabiltzen duten edo ezagutzen duten sendabelar baten inguruko fitxa bat betetzea proposa diezaiokegu: izena, argazkia, nola eta zertarako erabiltzen den eta nor izan den berriemailea.

JARDUERA1: Sendabelarrak gehiago ezagutu ditugu. Baita haiek nola erabili ere. Zuen etxean erabiltzen al duzue sendabelarrik? Nola erabiltzen duzue? Hasi galdezka!

Nahi izanez gero, taldeko fitxa guztiekin sendabelarren bilduma osa dezakegu. Ikasle bakoitzari bildumaren ale bat eman diezaiokegu etxera eraman dezan. Horrela, denon artean sendabelarren gaineko ezagutza aberastuko dugu eta izan ditzakegun gaitzak sendatzeko beste bide bat erabili ahal izango dugu.

JARDUERA2: Osatu dituzuen fitxak bildu eta bilduma osatu. Bakoitzak ale bat eskuratu eta etxera eraman. Gaitza heltzen denean probatu ea funtzionatzen duen!

Segidan zuhaitzekin eta belarrekin jolastea proposa dezakezue. Hainbat jolas egin daitezke: ahalik eta landare edo zuhaitz gehien izenak esatea, emandako izenetatik zein diren zuhaitzenak eta zein landareenak bereiztea, zuhaitzak zein auzotan dauden asmatzea eta abar. Ikasleei beraiei ere eska diezaiekegu jokoren bat asmatzea: jokatzeko modua, behar dituen arauak eta abar.

JARDUERA3: Orrialdeko zuhaitzekin eta belarrekin jolas egin dezakezue. Ea nork asmatzen dituen fin-fin izen gehiago, zein auzotan dauden... astindu irudimena eta proposatu zuek zuen jolasa.

Koadernoko 9. orrialdea.

14. GURE PARKEAK

Azken urteetan hainbat parke eraikiz joan dira gure auzoetan. XX. mendean izan zen biztanleen hazkunde izugarriak non-nahi eta nolanahi eraikitzea ekarri zuen. Egun batetik bestera auzo handiak eraiki ziren. Auzo horietako azpiegitura ez zen batera zaindu. Etxeak egin bai, baina haietan biziko ziren lagunak ez ziren kontuan izan.

Hala, espazio eta elkarbizitzako arazo larriak sortu ziren. Herriak oso espazio berde urriak zituen. Hirigintza arazo larriak sortu ziren. Espazio txikian pilatu ziren etxeak, kaleak, jendeak, autoak eta abar. Eta zeuden parke urrietan kontzentratu behar izaten zuten adin guztietako herritarrek. Haurrak jolasteko, adinekoak egoteko, gazteak elkartzeko... horrek, maiz, elkarbizitza arazoak sortzen zituen. Izan ere, espazio murriz horietan baloiarekin jolastu, bizikletaz ibili eta lasai egon nahi izaten baitzuen jendeak. Eta, noski, jarduera hain desberdin horiek guztiak ongi konbinatzea ez baitzen ahuntzaren gau erdiko eztula izaten!

Bizilagunak protestaka hasi ziren. Urte batzuetan ohikoak izan ziren bizi baldintza duinak eta bizi kalitatea eskatuz bizilagunek egin zituzten manifestazioak eta mobilizazioak. Udalak, garai hartan herri erdian zeuden industria orubeak berreskuratu eta parke eta espazio berde bihurtzeko konpromisoa hartu zuen.

Erabaki hori zenbaitetan bete zen eta beste zenbaitetan ez. Horren ondorioz sortu ziren, besteak beste, Musika plaza, Senidetutako Herrien plaza, Agirre Lehendakariaren plaza, eta abar. Beste batzuk, ordea, lantegiak eraitsiak izan zirenean, etxez eraikiak izan ziren berriz, Fanderia, Esmalteria, Niessen, Olibet eta beste hainbeste.

Beraz, egun ditugun parke gehienak lantegi zaharren orubeak, antzinako trenbideak eta zelaiak zirenak baliatuz sortutakoak dira.

Gai hau lantzeko eta proposatu diren jarduerak egokiago egin ahal izateko, ikasleei eska diezaiekegu gelara herriko parkeei buruzko informazioa ekartzea. Turismo bulegoan eta Aiako Harria Parke Naturaleko informazio bulegoan, adibidez, badira parkeei buruzko zenbait foileto. Horiek lagungarriak izango zaizkigu parkeen gainean egiteko proposatzen dugun azterketarako.

Egun auzo gehienek badute beren parkea. Auzoz auzo joanez hauek dira ditugun parkeak:

LARTZABAL: parke honek dituen zuhaitz babestuen artean, hosto gorriko pagoa aurkituko dugu.



FANDERIA: beste hainbat zuhaitzen artean, parke honetan magnolioak eta hosto gorriko pagoak daude.

GABIERROTako NAFARROAKO PARKEA: parke honek, berriz, platanondo izugarriak ditu.

GAZTAÑOKO ARRAMENDI: Herria ikusteko toki egokia da. Bidegorri-sarea ia bertaraino iristen da. Parke honetan aurkitzen da Belaunaldien Basoa. Baso horretako zuhaitz bakoitzak plaka bat dauka, zuhaitza landatu zuen neska-mutilaren izena erakusten duena. 2007an lehen 250 zuhaitzak landatu ziren, eta hurrengo urteetan, gaztainondo, haritz, pago eta abarren bidez hedatuz joango da basoa: zuhaitz bat herriko jaioberri bakoitzeko.

ERDIALDEAN: AGIRRE LEHENDAKARIAREN PLAZA: geometrikoki ipinitako lizarrak, makalak, zurzuriak eta kolore anitzeko zuhaitz loretsuak ditu; **ZUMARDIA:** bananondoak daude; **FORU PLAZA:** plazan bueltan eraturako lorategietan ezkiak eta zumarrak daude; **GAZTELUTXO:** parke honetan, lehen, herriko hilerri zaharra egon zen. Han ziren zenbait hilobi mantendu dira eta ikusgai daude parkean. Zuhaitzei dagokienean, karminak eta altzifreak aurkituko ditugu bertan. Aipatzekoa da altzifre horietako bat zuhaitz singularren artean katalogatuta dagoela; **PATXIKU ZELAIA PARKEA:** altzifreak daude; **SENIDETUTAKO HERRIEN PLAZA:** gure herriaren iraganaldi industrial gogoratzen digun tximinia bat dago bertan. Haren inguruan daude Tulle eta Lousada herriek senidetzearen oroigarri gisa gure herriari eginko opariak: harrizko hiru banku eta Frantziako lurralde horretako eskusoinu tipikoa duten eskultura-multzoa eta mahatsondoz inguratutako Portugaleko ohiko dolarea.

GALTZARABORDA: auzo honetako parkean, balio handiko espezie babestua den Idibihotz arbola eta udaberrian loratzen diren magnolio ederrak aurkituko ditugu.

KAPUTXINOAK: parke honetatik, Pasaiako badia, Jaizkibeleko mendi-hegalak eta Aiako Harria Parke Naturala ikus ditzakegu. Bertan, itsasontzi bateko helize bat eta beste hainbat itsaso-tresnak topatuko ditugu. Gainera, haur-parkea eta helduentzako kirol-tresnak ere badaude.

ALABERGA: mendi-hegal uhinduetan aurkitzen den auzo honetan dagoen zuhaitz aniztasuna, mikroklima bereziaren ondorioa da. Landaredi bikain hori Alaberga auzoa Kaputxinoetako auzoarekin lotzen duten bidezidor inguruetan biltzen da: gaztainondoak, haritzak, akaziak, izeiak eta intxaurrondoak daude bertan.

IZTIETA/ITZIETAKO DIPUTAZIO PLAZA: indigaztainondo, lagestroemia, albizia eta antzinako gingoa daude landatuta parke honetan.



Parkeei buruzko informazioa eta argazkiak dituzue udaleko web orrian. Haiek ezagutu eta aztertzea proposatzen dizuegu.

15. HERRIA BERDATZEN

Azken urteetan, beraz, espazio berdeak ugaritu dira herrian eta plaza berriak sortu dira. Baina nahikoak ote dira?

JARDUERA1: Aurreko jardueran ikusi dituzten parkeak herriko maparen gainean koka genitzake. Mapan nabarmentzeko moduan ipini ditzakegu, plastilina zati berdeak itsatsiz gainean, adibidez.

Mapa behatuko dugu segidan. Ongi aztertzeko eskatuko diegu, behaketa horretatik ondorioak atera beharko baitituzte: parkeak asko ala gutxi diren, auzo guztiek ba ote dituzten, herrian proportzionatuta ote dauden edo pilatuta, non eraiki ahal izango lirateke berriak eta abar.

JARDUERA2: Nahikoa parke ote ditugu herrian... eztabaidatu taldean.

Herrian ditugun parkeak desberdinak dira. Landaredia eta fauna desberdina dute. Gainera, parke bakoitzean topa ditzakegun zerbitzuak, elementuak, zuhaitz motak eta abar desberdinak dira.

JARDUERA3: Gelara eramandako informazioa eta Udaleko webean dagoen informazioa aztertu eta parke bakoitzak dituen elementu bereizgarrien zerrenda osatu.

JARDUERA4: Bildu talde txikietan eta bakoitzak parke bat aukeratu. Parkeari buruz ematen den informazioa aztertu eta gelakoei deskribatu. Horretarako, taldekoen artean bildutako informazioa antolatu eta aurkezpen gidoia prestatu. Gero, parkea aurkeztu gelan.

Liburuxkan parke bati buruzko fitxa prestatzeko proposamena egin diegu. Horretarako, espazioa huts aurkituko dute, informazioaz gain, fitxa bera ere beraiek diseinatzeko.

Nahi izanez gero, jarduera taldeka egitea proposa geniezaieke, aurreko talde bera mantenduz horretarako. Beste aukera bat izan liteke lana bakarka egitea. Lana errazte aldera, ikasleei aurrez adierazi beharko genieke parke bat aukeratu beharko dutela eta haren gainean ahalik eta informazio gehien bildu beharko dutenez, taldeka egiten diren aurkezpenetan apunteak hartzea komenigarria izan daitekeela. Denbora behar dute, beraz, nahi duten parkea aukeratzeko.

Hainbat iradokizun egin geniezaieke. Adibidez, informazio guztia ez dago zertan idatziz eman beharrik, ikurrak erabil daitezke. Ikasleak parkeen gaineko informazioa aztertu dutenean ohartuko ziren ikur asko erabili direla. Horiek berak edo beraiek asmatutakoak erabil ditzakete.

Informazioa ahalik eta era ordenatuenean biltzea aholkatuko genieke. Nahi izanez gero, datuak bildu eta antolatzeko taula eskain diezaiekegu. Taulan datuak jarri aurretik taldekideekin akordioetara heldu beharko dute, bakoitzak norberaren informazioa edo ikuspuntua eskainiko dio taldeari eta ondoren taldean eztabaidatuko dute informazio guztia eta denen artean erabaki zein den baliagarriena edo interesgarriena.

Material osagarrian duzue plantila bat informazioa ahalik era egokienean biltzeko:

Material osagarria: [Datuak biltzeko txantiloia](#)

JARDUERA6: Taldeka bildu eta aukera ezazue herriko parke bat: gustukoena duzuen, zuen auzokoa, ikastetxetik hurbil dagoena edo nahi duzuen.

Beha ezazue eta, ondoren, hartu dituzuen oharrak ordenatu eta lagunei aurkezteko deskribapen testua osatu. Ez ahaztu argazkia ere ipintzea.

Koadernoko 10. orrialdea.

16. GURE PARKEA DISEINATUZ

Ezagutu, ikusi eta aztertu ditugu gure herriko parkeak. Halaber, eztabaidatu dugu parke horiek nahikoak diren ala ez, nahikoa zerbitzuz eta elementuz hornituak dauden eta abar.

Eska diezaiekegu ikasleei haien gustuko parke bat diseinatzeko. Lanean hasi

aurretik, aipa ditzakegu nortzuk diren batik bat parkeetako erabiltzaileak eta guztien beharrak kontuan izan beharko dituztela gogoraraziko diegu. Horretarako, guztien beharrak asetuko dituzten zerbitzuak, ekipamenduak eta elementuak aurreikusiko dituzte.

Parkea taldeka diseina dezakete. Taldeak, aurreko jardueretan osatutako berak izan litezke.

Gustuko jarduera badute, parkea paperaren gainean diseinatu ondoren, nahi badute “eraiki” dezakete, maketa gisa. Egokienak irizten dituzten materialak balia ditzakete horretarako. Amaieran, eraikitako parkeen erakusketa antola dezakete ikastetxeko gainerako ikasleentzat eta gurasoentzat. Komenigarria da jarduera hasterakoan denen artean adostea zein helbururekin diseinatuko diren parkeak; hau da, erakusketa baterako badira, ikasleek jakin behar dute zein den beren lanen helburua. Hala ere, ikasleek izan ditzakete beste ideien bat.

Eta nola ez, talde bakoitzak ipin diezaiola izena diseinatu duen parkeari.

JARDUERA: Diseina ezazu zuen gustuko parkea. Kontuan izan parkeko erabiltzaile guztientzako ekipamenduak aurreikusi behar dituzuela. Ondoren eraiki zuen parkearen maketa. Ez ahaztu parkeari izena ematea!

17. UDALERRIKO GAINERAKO PARKEAK

Orain arte aztertu eta ezagutu ditugun parkeak herrigunean daude, herriko auzoetan.

Herrigunetik kanpo, halaber, baditugu beste bi parke garrantzitsu.

JARDUERA: Ezagutzen al dituzue udalerrian dauden beste parke batzuk? Ba al dakizu non dauden eta nola izena duten?

18. LAU HAIZETA PARKEA

Parke horrek 16 ha. ditu. Haren lurak, Astigarragako, Donostiako eta gure udalerriko lurak dira.

Aipatu herriguneetatik gertu dagoen gunen naturala izanik, jolaserako eta aisialdirako espazio irekien gabeziari konponbide bat ematearren, ingurua lehengoratu eta zaindu egin nahi dela.

Parkeak Beraundik eta Zamalbidetik ditu sarbideak. Beste sarbide bat ere badu Altzatic.

JARDUERA1: Zer egin beharko litzateke horretarako?

Lau Haizeta parkean hainbat elementu aipagarri aurkituko ditugu: San Markoko gotorlekua, Txoritokietako gotorlekua eta beste zenbait monumentu megalitiko, horien artean: Aitzetako Txabala trikuharria eta Txoritokietako zutarria.

JARDUERA2: Ezabatu parke honetan ez dauden elementuak:

Ibaia, San Marko, Txoritokieta, Haitzuloak, Bidegorria, Monumentu megalitikoak, Lorategiak.

Koadernoko 11. orrialdea.

19. AIAKO HARRIA PARKE NATURALA

Euskal Herriko Naturguneen katalogoan barne hartu zuten 1995ean. Gainera, Parke Naturala Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) gisa izendatua dago, eta Natura 2000 Sarean dago, bioaniztasuna kudeatzeko eta ingurune naturala kontserbatzeko Europako sarean, alegia.

Urumea eta Bidasoa ibaien arteko mendietan dago kokatuta eta gure herriko goi lurrez gain, Hernanikoak, Donostiakoak, Oiartzungoak eta Irungoak hartzen ditu.

Bestalde, muga egiten du Lapurdiko eta Nafarroako hostozabalen basoek okupatzen dituzten eremuekin.



Granitiko egitura du, oso antzinakoa den seinale, bertan duela 300 milioi urteko fosilak ikus baitaitezke. Nabarmentzekoa da harizti, pagadi eta baso mistoen kontserbazio egoera eta habitaten kalitatea, fauna ugari dago bertan bizitzeko aproposa, adibidez basakatua, basurdea, orkatza, saia, belatza, izokina eta Pirinioko ur-satorra.

Gure udalerrian daude parkeko 1.736 ha., hain zuzen, eta aisialdirako bost atsedeneremu ditu: Listorreta, Barrengoloia, Malbazar, Pagotzarte eta Otraitz.

Aiako Harria Parke Naturelean hainbat elementu aipagarri ditugu: Listorreta-Barrengoloia landa-eremua, Aizpitarteko haitzuloak, hainbat monumentu megalitiko, haien artean Langagorriko zista, eta Añarbeko urtegia eta basoa.

Udaleko web orrian, Aiako Harria parkeari buruzko bideo interesgarria duzue, hemen aipatutako aldeak ongi jaso eta laburtzen dituen.

20. BASO KUDEAKETA eta LIFE-NATURA EGITASMOA

Parke Naturalaren helburu nagusia basoaren kudeaketa da: baso helduak lortzera bideratzea da, konplexutasun estruktural eta basoaniztasun handiak dituzten basoak, alegia. Izan ere, gaur egun mendeetan zehar ustiatutako basoak ditugu, eta horren ondorioz, basoak nahikoa homogeneoak dira.

Beraz, basoan sustatuko diren jarduerak, baso helduak ezartzeaz gain, habitat naturalak zaharberitzea eta ugaztun basati mehatxatuak Pirinioetara sartzea izango dira.

Horretarako, LIFE-natura egitasmoaren bidez, Añarbeko hariztien eta pagadien eta Añarbe errekaen habitat naturalen kontserbazio egoera lehengoratu nahi da.

21. AÑARBEKO BASOA

Añarbeko basoan dagoen hariztia, Gipuzkoan eta Bizkaian daudenetatik handiena da.

Baso hori, Errenteriako Udalarena eta gu guztiona da, osorik eta antzina-antzinatik. Garai larrietan, udaleko ekonomia ez zenean ona, udala hainbat lursail eta baso saldu zituen. Beraz, hedatzen ari zen herriguneaz kanpo, landa-guneak desamortizazio handiak ezagutu zituen. Añarbe, hala ere, ez zuen sekula saldu.

Ustiapen desberdinak izan ditu, garaian garaikoak. Erdi Aroan ontzioletarako behar zen egurra bertatik atera zuten. Esaterako, Espainiako *Armada Invencible* osatu zuten ontzien mastak Añarbeko basotik atera zituzten.

Ondoren, burdinolentzat behar zen ikatza ere baso horietatik atera zen, neurri handi batean. Erabilera bakoitzak basoaren ustiapen mota bat eskatu zuen. Mastetarako enbor luze eta zuzenak behar zituzten, adibidez.

Ezaugarri horiek betetzeko beharrek baldintzatu zuten, beraz, basoaren ustiaketa. Ustiapen horiek utzi dute beren arrastoa basoan. Pago motzak erraz ikusi ahal izango ditugu. Balia ditzakegu ikatzaren inguruan sakontzeko. Hausnartu ditzakegu ikasleekin ikatza egiteko pago egurra behar zutelarik, pagoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko moduaren gainean zein iritzi duten eta abar.

Beste ustiapen mota batzuen arrastoak ere topatuko ditugu, lerro zuzen-zuzenetan landatuta dauden harizti amerikarrak, adibidez, hemengo haritzak baino azkarrago hazten direnez, egurrari etekin ekonomikoa ateratzeko sistema bat.

Ustiapen horien ondorioz, eta basoa garbi mantentzearen kontzeptuarekin, hildako zuhaitzak atera eta sutarako edo beste erabilera batzuetarako erabiltzen ziren.

Orain, zuhaitz hilek basoan betetzen duten berebiziko funtzioaren jakitun, bertan uzten dira usteltzen. Gainera, animalientzako babesleku aproposak izateaz gain, bioaniztasuna laguntzen dute, espezie askori bizilekua eskaintzen baitiote.

Añarbeko basoa, bestalde, Euskal Herriko isurialde Atlantikoko korridore ekologikoan dago. Bioaniztasunaren kontserbaziorako estrategikoak diren baso hostoerorkorren artean dago Endara, Xoldokogaina, Oieleku, Artikutza, Malerreka, Basaburua, Ultzama-Belate, Baztan, Kinto eta Irati basoekin batera.

Bestalde, Añarbe Oarsoaldean, Donostialdean eta Bidasoaldean ondoen kontserbatutako natur basoak dituen baso eremua da.

Basoak, gainera, herriko kliman eragiten du, etengabe atmosferako CO2 finkatzen duelarik. Añarbeko urtegira iragazten duen ura erregulatzerakoan, sedimentuak erretenitu eta arro hidrokologikoen lurzorua babesten du.

22. ETA NORTZUK BIZI DIRA AÑARBEN?

Gipuzkoako Foru Aldundia Añarbeko bioaniztasunaren inguruko hainbat inbentario egiten ari da 2006ko urteaz geroztik. Emaitzak Añarbek eskualdean eta lurralde osoan duen garrantziaren berri ematen ari dira.

Fauna eta floraren espezie berriak agerian uzten ari dira, horietako asko ongi kontserbatutako baso helduetan soilik aurki daitezkeenak dira eta eskakizun ekologiko handiak dituzte.

Añarbe interes biologiko handiko animalia basatien habitata da: basakaturia, katajineta, erbinudea, azkonarra, katagorria, muxar grisa, orkatza, basurdea, okil beltza, okil handia, hontz ertaina, urubia, izokin arrunta eta kukulumera, adibidez. Horietaz gain, Parke Naturaletik hurbil habia egiten duten sai arre eta sai zuria bezalako espezie haratusteljaleak ere eremu honetan larreratzen dira.

Galzorian dauden bisoi europarraren eta muturluze piriniarraren babes eremua da. Ibai inguruetako hezeguneetan: amuarraina, aingira, ezkalua, ur-igela, baso igel gorria, apoa eta uhandrea, ur-sugea, martin arrantzalea, ur-zozoa, kuliska eta ipurtatsa.

Ibilbide luzea egiten duten hegazti migratzaileentzako atsedeen gunea da, bestalde, han hartzen dute atsedeen, besteak beste, murgil handiek, antzarek, zangaluzeez eta abar.

JARDUERA: Egin klik Añarbeko irudi gustagarrienean.

Koadernoko 11. orrialdea.

23. IRTEERA: MALBAZARREN BARRENA

Unitate honetako irteera Malbazarren inguruan egitea proposatu nahi dizuegu. Kontuan izan beharko duzue urtaroa. Izan ere, hariztiak eta pagadiak ikustea eta aztertzea proposatu nahi dizuegu, haietan sortzen diren itzalak eta argiak. Horretarako, beraz, udaberrian edo udazkenean joan beharko duzue, zuhaitzek hostoak dituztela. Udaberrian joatea aukeratzen baduzue, kukua erraz entzuteko aukera izango duzue.

Eguraldiari ere kasu egin beharko diozue. Izan ere, txabola txiki batzuk salbu, ez baituzue aterperik aurkituko.

Bestalde, ikasleei mendian ibiltzeko aproposak diren oinetako eta arropak eramateko eskatuko diegu.

Horren inguruan eztabaida dezakegu haiekin ere: zein jantzi eta oinetakoak diren



egokiak eta zergatik, adibidez

Bestalde, prismatikoak eta argazki kamera eramateko aholkutuko diegu. Kontuan izan, aurreko jarduera egiteko argazki bat eskatuko diegula.

Irteera honetan, herritik bertaraino joatea luze samarra denez, Listorretaraino, edo gehiago gerturatu nahi izanez gero, Susperregiraino autobusez joatea proposatuko genizueke.

Listorretatik abiatzen bazarete, atsedengunearen amaieran dagoen porlanezko pistan gora egin beharko duzue. Handik 1,5 kilometrotara Susperregira helduko zarete, Idoiako lepoan. Han baduzue iturria.

Hemendik aurrera oinez jarraitu beharko duzue, ezinbestez.

Aparkalekutik asfaltatu gabeko bidea irteten da. Langaz itxita dago bidea.

Alboko oinezkoentzako pasabidetik igaro eta bide hori jarraituko dugu. Handik kilometro batera, gutxi gorabehera, bidearen erdialdean, eskuinetara, menditik bertatik sortzen den iturria duzue: lasai edan dezakezue ur horretatik. Berehala, Malbazarreko gainera iritsiko gara. Han bertan duzue mahaiak eta aulkiak dituen atsedean lekua. Nahi izanez gero, leku aproposa hauxe izan liteke hamaiketako egiteko edo gero, buelta egin ondoren, bazkaltzeko.

Han bertan, bidearen eskuin aldean duzue lehenengo interes puntua:

1. HIGADURA ZUZENDUZ

Malbazarreko lepoan gaude, 420 metroko altueran. Lurzorua arbelaz osatuta dago, lurralde horrek, gainera, aldapa handiak ditu eta euri ugari jasaten ditu. Ondorioz, higadura edo erosio-arriskua handia da eta lurzorua eruzeraz emankorretik mineralen galera gertatzea arrunta da.

Mendian edozein gisara ibiltzeak baditu bere ondorioak. Zelai aldapatsu horretan, esaterako, bolada batean motorrez eta 4×4 ibilgailuz ibili ziren.

Ondorioz, higadura garrantzitsuak sortu ziren, landaredia eta lurra desagertuz.

Atzera bueltarik gabeko egoera bihur ez zedin, hondatutakoa zuzentzea zen hoberena. Horretarako, ingeniariak biologikoa eta irizpide ekologikoak erabiliz, higadura zuzendu eta berriro berezko izaera eta paisaia berreskuratu da ingurunean. Lan horiek 1997an amaitu ziren, eta higadura egoera nolakoa zen, egin ziren lanak eta emaitza erakusten dituen panela dago bertan.



Zelaia leheneratua dago egun. Handik gora abiatuko gara, muinoaren kaskoraino. Handik dagoen ikusmira aztertuko dugu. Iparraldera begiratzuz gero, gure herria eta itsasoa ikusten dira, baserriak eta zelaia ere. Txoritokieta eta Bizarain (San Marko) garbi ikusiko dituzue.

Beste aldeetara begiratzuz gero, basoak eta mendiak ikusten dira. Ezagutzen badituzue handik hainbat mendi identifika daitezke, aurrez aurre Urdaburu ikusiko duzue.

Han goitik igelen putzua ikusiko duzue, zuen oinetara.

Kaskotik utzitako bidexka hartu eta berehala, aldapan behera, bigarren helmugaraino helduko zarete.

Iritsi baino pixka bat lehenago, mugarriak ikusiko ditugu; gure herriaren, Hernaniren eta Donostiaren arteko mugak adierazten dituen mugarria, hain zuzen. Aukera baduzue, mugarriak zer diren eta zein funtzio betetzen duten aipa dezakezue. Baita ere historian zehar izan duten garrantzia eta haien inguruan sortu diren gatazkak.

2. MALBAZARREKO URMAELA

Mendi-putzuak habitat urriak izanik ere, ezinbestekoak dira mehatxatutako hainbat fauna eta flora espezie baliotsuk bizirik iraun dezaten. Añarbe Mendi-basoaren inguruan, halako guneen gabezia nabaria da. Ondorioz, anfibioek basoko pistetan sortzen diren putzuetan erruten dute. Ugalketa garaian, ordea, putzu txikiak lehortu egiten dira edo arrautzak zapalduak izateko arriskua dute, ugalketa zapuztuz, maiz.

Espezie horientzako babesleku bat sortzeko eta bioaniztasuna areagotzeko, 2004ko ekainean eratu zen hezegunea. Bertako ur-maila euriaren ekarpen naturalaren arabera aldatzen da, eta hari esker, baso igel gorria, uhandre palmatua eta arrabio arrunta gisako hainbat baso-anfibioen presentzia hobetu da.

Urmaela, bestalde, edontzia da hegaztientzat eta habitat aproposa burruntzia gisako intsektu mehatxatuentzat.

Urmaelean bertan duzue xehetasun guztiak eskaintzen dituen panela.

Urmaeletik bertatik abiatzen den bidezidorra hartu beharko duzue. Urdaburu aurrez aurre dugula norabide horretan jarraitu beste 3 minutuz edo. Bide zabalago batekin topo egingo duzue. Bidegurutzea adierazteko seinalea ikusiko duzue, aurrez aurre. Bidegurutzean ezkerretara egin eta jarraitu. Berehala, Añarbeko urtegitira



jaisten den pistarekin bat egingo duzue. Eskuinera egin, langa pasa eta pista horretatik jarraituko dugu.

Oinez 10 minutu egin ondoren, pagadi bat aurkituko duzue ezkerretara. Erraz ezagutuko duzue, bide ondoan inguratzen duen hesia gurutzatzeko langa baitu. Hura gainditu eta bertan buelta bat eman dezakezue. Pagadia nolakoa den behatzeko eskatuko diegu: eguzkia asko sartzen ote den, argitsua ote den, belar handia ote dagoen basoan, garbia ote den. Ondorioz, animalia asko edo gutxi biziko ote diren eta abar.

3. PAGADIA

Bidea utzi eta pagadian sartu beharko duzue. Kontuz ibiltzeko eskatuko diegu, pagadi hori lau samarra izanik ere, paraje horiek nahikoa malkartsuak baitira.

Pagoek eratutako estalpe ilunak, lurra orbelez estalita izatea du ondorio, ez dira, hortaz, animalia eta landaredia aniztasun handiak topatzeko leku aproposenak. Haatik, hain estimatuak diren gibelurdinak biltzeko inguru ezin hobeak ditugu.

Pagoak behatzeko eskatuko diegu, haien enborrak, dituzten zuloak, adin desberdinetako pagoak ote dauden, hildako pagoak eta abar. Aurkitutako animaliak eta landareak koadernoan apuntatzeko eskatuko diegu.

Buelta bat eman ondoren, utzitako bidea hartuko dugu berriro.

Pagadiko sarreraren ia parean, bidetik irteten den bidexka bat ikusiko duzue, eskuinera. Nahi izanez gero, pagaditik irteterakoan ikasleei esan diezaiekezuegu hurrengo helmuga harrizko txabola bat dela eta erne joateko ea nork topatzen duen. Estrategia ona izan liteke, bidea ez baitago markaturik eta ziur haiek erraz topatuko dutela.

Bidexkatik aurrera eginez Maixarko txabola aurkituko duzue berehala. Maixarreko bidexka behatzeko esan diezaiekezue, nahikoa erraza baita han basurde eta beste hainbat animalia oinatzak topatzea.

4. MAIXARKO TXABOLA

Añarbeko parkean gisa horretako hainbat txabola daude. Malbazarren ere bada beste bat, Malbazarreko txabola. Haien funtzioa, mendian dabilen jendeari aterpea eskaintzea da. Hala ere, jendearen utzikeriaren eta zabarkeriaren ondorioz, gehienak, oso egoera kaxkarrean daude.



Orain, eta jendearen utzikeriaren ondorioz, aterpeak dituzten itxiturak egitea lehenetsi da. Hala, garbiago mantentzen dira. Mendian gaua eman behar dutenek, aterpea izango dute, eta nahiz eta txabolak ez izan, ez izan beldurrik, lo zaku bat nahikoa izango da-eta gure mendietan gauz izaten diren tenperaturei aurre egiteko!

Maixarreko txabola harrizkoa eta dotorea da. Seguruenik egoera nahiko onean topatuko duzue.

Han barruan dauden elementuak behatuko ditugu: beheko sua, mahaia, zartagia eta ontziak garbitzeko produktuak. Baita erratza eta hondarrak biltzeko pala. Behaketa horren ondoren, topatu dituzten elementuak kontuan izanik, ikasleei eska diezaiekegu txabola horretan zer egin litekeen, zer zerbitzu eskain diezagukeen eta nola erabili beharko litzatekeen adieraziz hipotesiak egiteko.

Maixarko txabolatik atzera Añarbera jaisten den bidea hartu beharko duzue segidan. Handik behera jarraitzea proposatzen dizuegu. Dagoeneko nekaturik bazaudete atzera bidean gora hartu eta Malbazarreko gainera eramango zaituzte bideak. Komeni da, hala ere, bidean topatzen duzuen hariztiren batean saihestu duzuen helmugan egiteko proposatzen dizuegun behaketa egitea.

Aurrera jarraitzeko hautua egiten baduzue, handik oinez 10 bat minutura aurkituko duzue ezagutu nahi dugun partzela, bidean eskuinera. Erraz bereiziko duzue, itxitura baten barruan baitago

5. HARIZTIA

Lurzoru aberatsagoetan, aldiz, hariztiak dira nabarmen. Pagadietan ez bezala, hariztiak ez dira oso trinkoak izaten eguzkia eta argitasuna sartzen baitira oihanpera. Landarediaren aniztasuna eta hegazti eta ugaztun kopurua handiagoa da, ondorioz. Haritz artean gorostiak, urkia, huntza eta ahabia gisako landaredia aurki genezake, besteak beste.

Bestalde, onddoak eta ziza-horiak aurkitzeko inguru egokiak dira hariztiak.

6. PARTZELA

Bidetik hariztia behatzeko eskatuko diegu: haritz guztiak antzeko adinekoak diren, ikusten ote dituzten haritz bereziak eta abar.

Seguruenik berehala ohartuko dira haritz batzuk gerritik ebakita daudela. Zer gertatzen ote zaie zuhaitzei gisa horretara gerritik mozten dituztenean?



Lehen aipatu dugu hildako zuhaitzek basoan duten eginkizun garrantzitsua. Aipatu dugu ere, Añarbeko basoak, ustiapenen ondorioz, nahikoa baso homogeenak direla, antzeko adineko zuhaitzak dituztela. Baso heterogeen batean zuhaitz batzuk gazteak dira, besteak zaharrak, besteak landareak... eta denak dira beharrezkoak basoa osasuntsu eta aberats izateko.

Añarbeko basoko zuhaitzak heldu bitartean, tartean batzuk moztu dira basoak egur hila izan dezan. Lurrarentzat elikagaia izateaz gain, animalia askoren babeslekua dira. Bestalde, zuhaitz hil horiek landare askorentzako ekosistema egokiak dira: likenak, goroldioak eta beste hainbat espezierentzat, esaterako. Eta horiek guztiek, bioaniztasuna aberasten dute.

Bistan dugun partzela horrek hektarea bateko hedadura du. Añarbeko Herri Basoan gisa horretako hoge partzela daude, proba moduan.

Metro batzuk aurrera egitera animatzen bazarete, bihurtzetik eskuinera hosto artetik begiratu, Añarbeko urtegia ikusi ahal izango duzue han behean. Bertaraino joan nahi baduzue bidea jarraitzea besterik ez duzue, baina kontuan izan orain aldapa behera erraz egiten ari zareten bidea gero aldapan gora egin beharko duzuela.

Atzera egingo dugu berriro, Malbazar gaineraino. Bidean basoari, hariztiei, pagoei eta abarri buruz ikasi ditugunak ikusteko aukera asko izango ditugu. Egokiak iruditzen zaizkigun lekuetan gera gintezke parajeak behatzeko eta ondorioak ateratzeko.

7. MALBAZARREKO GAINA

Leku aproposa izan liteke hauxe baltzaltzeko. Baita Añarbeko basoa behatzeko. Hainbat tonalitate berde ikus litezke han goitik. Zergatik ote da hori?

Bertatik ez da Añarbeko urtegia ikusten, baina bai haren erreka isurtzen duten errekaen arroak.

Errekak aztertu genituenean aipatu genuen gure herriak bi isurialde zituela. Bi isurialde horien banalerroaren gainean gaude, hain justu. Gu gaudenetik alde batera dauden errekek Urumea ibaian isurtzen dute eta beste aldekoek, berriz, Oiartzun ibaian.

Bi aldeetara dauden paisajeak ere aldera ditzakegu. Eraikita dauden aldeak, ez daudenak eta abar. Leku aproposa egunean zehar ikusi eta ikasi ditugunak bergogoratzeko.

Ibon Zabala herriko bertsolari gazteak URDABURU BIZIRIK bertso sorta idatzi zuen. Bertso horiekin 1992ko Zapirain Anaiak Bertso Paper lehiaketan gazteen saileko 1.go sari irabazi zuen. Irteera egiteko proposatu dizuegun parajeak aipatu eta deskribatzen ditueneguz, egokiak iruditu zaizkigu hemen agertzea.

URDABURU BIZIRIK

Kargatuko dut bertsoz
sei bagoiko tren
doinu bezala hartuz
Betroiarena
ibilaldi bat gure
lurretan barrena
aipatuz herri honen
baso ederrena
suntsitzen gaudena
ematen dit pena
zaborrez gizena
lehen garbia zena
Urdaburu aldea
dauka izena.

Zumardian hasten da
ibilaldi gida
azkar irits gaitezke
Susperregira
goraxeago goaz
Marbazar erdira
gero Urdaburura
eskuinetik tira
basoei begira
jira eta bira
ezker eskubira
pagoen distira
horrelako tokiak
asko ez dira.

Horra ibilaldian
nondik norakoa
baina esateke dut
gainerakoa

Urbaduru atzean
pagadi trinkoa
naturaren balioz
lehen mailakoa
txilarra nahikoa
ta perretxikoa
orbel azpikoa
goroldiozkoa
izadiaren gune
benetakoa.

Añarberaino doa
zuhazti luzera
errekastoak berriz
mendian be(he)ra
amurrainak igeri
bat eta bestera
ardiak bisitari
ura edatera
txorien tankera
kantuzko harrera
joan haien artera
amets egitera
eta liluraturik
irtengo zera.

Baina guztia ez da
hain eder ta fina
hasieran aipatu dut
gauza jakina
sasi-mendizaleen
okerreko grina
nolanahi uzten dute
mendian zikina
naturari mina
horrela egina
beraien ekina
onartu ezina
bestela galduko da
natur jardina.

Etixerako bidean
noa berehala

deskribatu dudana
ez da makala
aipamen ederrez gain
kritika apala
baso bati egin nahi
izan diot gala
pagoen itzala
mami ta azala
gaur egun bezala
gero ere hala
Urdaburuk bizirik
iraun dezala.

Bertsolaria: Ibon Zabala Lizarazu
Doinua: Betroitarena

24. KONTAKIZUNAK

KALDEREROAK HERRIAN

Garai hartan ohikoa zen Hungariako kaldereroen etorrera. Ijito transhumanteak ziren, eltzeen, zartaginen, eta ontzien konponketan eta salmentan aritzen zirenak, latorrigile gisa iaioak baitziren.

Ijitoak, bere aldetik, herriko dendetan garai hartan luxuzko produktuak ziren gaiak erosten zituzten: gurina, marmelada eta tea.

1908an ere iritsi ziren herrira urtero bezala. Fanderia inguruan kanpaturik zeudela haietako emakume batek mutiko bat erditu zuen ekainaren 1eko goizaldeko lauretan.

Kristauak zirenez, jaioberria parrokiari bataiatzea erabaki zuten. Horretarako, orduan hango apaiza zen Francisco Aiestaranekin jarri ziren harremanetan.

Hizkuntza, ordea, oztopo izan zen elkar-ulertzeko. Izan ere, ijitoek frantsesez hitz egiten baitzuten. Ijitoek, beren erosketak egiten zituzten dendako Mendarte sendiari bitarteko lana, itzultzaile lana, egiteko eskatu zioten, orduan. Dendan primeran ulertzen baitzuten elkar.

Bitartekaritza hori ezinbestekoa suertatu zen haurra herrian bataiatu ahal izateko.

Ijitoek, Mendartetarrekiko esker onez, haurraren aita eta ama pontekoak izan



zitezen eskatu zieten.

Luisa Lucila Mendarte eta Juan Serapio Rufo Mendarte izan ziren 1908ko ekainaren 4an haurra besoetan hartu zutenak. Juan Luis izena eman zioten haien omenez.

Haurraren gurasoak Nicolas Churona lanbidez galdaragilea eta Elisa Churona ziren, Craco-koak (Hungaria).

Churona familiak festa handi bat egin zuen gertaera ospatzeko. Haien jantzi koloretsuenekin eta ikusgarrienekin ospatu zuten Mendartetarrekin.

Egun hartako oroigarri, Luisa Lucila Mendarteri egun bere etxeoek gorderik duten urrezko txapatxoa oparitu zioten galdaragileek, berek grabaturikoa.

25. UREK ERAMANDAKO AUTOBUSA

Herria ur azpian geratu zen berriro 1953an. “La Baztanesa” konpainiako autobusa urek eraman zuten Lartzabalgo parean.

Autobusa bidaiariz beteta zihoan, eta motorraren pisuaren eraginez erraz geratu zen ur azpian. Herriko kamioi batek atera ahal izan zuen uretatik soka eta kableen bidez.

Handik pare bat hilabetetara, kamioi eta gidari bera Gaintxurizketatik barrena zihoala kargaturik, Foru Aldundiko arduradunek mendian behera amildu zen autobusa ateratzeko eskatu zioten. Autobusaren barruan gidaria eta kobratzailea besterik ez zihoazen. Foru Aldundiko bi kamioi hura ateratzeko ahaleginean ari ziren baina ezin zuten lortu.

Herriko kamioiak ez zuen aparteko lanik izan autobusa eroritako lekutik atera eta berriro errepidean jartzeko.

Kamioi gidariaren harridurarako, tiraka ari zela autobusa eroritako zulotik agertzen hasi zenean, ohartu zen hilabete pare bat lehenago Lartzabalgo uholdeetatik atera zuen autobus bera zela.

Autobus gidariak eta kobratzaileak beren buruak salbu ikusi zituztenean, lau haizetara zabaldu zuten kointzidentzia.

Kamioi hori bera izan zen hurrengo urteetan Aralarko Guarda-etxe inguruan hainbat pista zabaltzen aritu zena eta eraikuntzarako materiala eramaten ibili zena



Igaratzaraino. Hala, paraje haietara heldu zen lehen kamioia izan zen.

26. KAMIOIEN AURREKO GARRAIOA

Kamioien aurretik, itzain eta zamaltzainak aritzen ziren garraio lanetan. Idi eta zamari bidezko garraioak izerdi eta lan ugari eskatzen zuen, ordea.

Madalena kalean bizi ziren lau familia ziren lan horretan ibiltzen zirenak: Aduriztarrak, Arruabarrenatarrak, Bengoetxeatarrak eta Eizmenditarrak. Geroago kamioiak izan zituzten arren, itzain eta zamaltzain ibilitakoak ziren.

Lan haren gogortasunaz jabetzeko, adibide gisa, 1922an herriko Imprenta y Litografia Valverde enpresak Irungo Fosforera pospolo lantegira egiten zuen garraioa jar daiteke.

Pospolo kaxetarako kartoia inprimatzen zuten herrian. Gero, hura Iruneraino eraman behar izaten zen. Joan-etorria lasai eta patxadaz hartzeko modukoa zen, bidea hamar kilometro eskasekoa eta errepidea baitzen.

Kartoia zen eraman beharreko zama; ez zen astuna, baina bai bolumen handikoa.

Garraio hori egiteko bi gurdi-ardatz erabiltzen zituzten Anton eta haren 12 urteko semea Antonio Arruabarrena itzain zituztela.

Irungo Arretzeko gaina igo ondoren, azken maldak gaindituta, idiak askatu, bi gurdiak atoian jarri eta idi pare bati lotu ondoren eramaten zen kartoi-zama pospolo fabrikara; bitartean, beste idi pare, gurdirik gabe eta 12 urteko umea itzain, herrira itzultzen zen.

27. NORTEKO FERROKARRILA

Txirrita bertsolariarena da *Norteko tren-bideari aste ontan Txirritak jarriyak* izeneko bertso sorta. Xabier Letek kantatuta aurkituko duzu helbide honetan <http://www.goear.com/listen/e928932/norteko-ferrokarrila-xabier-lete>

Koadernoan lehen bi bertsoak ipini dizkizuegu. Lehenik eta behin ikasleekin bertso horiek irakurtzea proposatu nahi dizuegu. Ondoren, ulertu ez dituzten hitzak eta esaldiak adieraztea eskatu diezaiekegu eta denen artean argitu ditzakegu.

Gure proposamena bertso horiek entzutea eta buruz ikastea da.

JARDUERA1: Entzun bertsoak eta ea Txirrita bezain ongi kantatzen dituzun!

Koadernoan Xabierrek kantatzen duen bertso zati bat duzue. Hala ere, hark ez du osorik kantatzen. Jarraian duzue osorik, bertso guztiakin. Proposatuko dizuegun jarduera egin ahal izateko lagungarria litzateke, akaso, ikasleek bertso guztia izatea.

Norteko tren-bideari Aste ontan Txirritak jarriyak

1

Naparrua'tik ardo-karraio
itzai asko zan ikusi,
prankok bazauzkan iri koskorrak
beren kollare ta guzi;
zurezko ardatzak lumerarekiñ
al zan maizena iyurtzi;
denbora artan Pantorrill zuten
karreteruen nagusi.

2

Garai artako itzai koskorrak
ongi zebiltzan lanian,
Gipuzkua'n da Bizkai aldian
da Euskalerra danian,
gorputzak bapo gobernatuaz
eranian da janian;
akabo oien jornal-biria
trena etorri zanian.

3

Aditu zituztenian trenen
txistua eta marruak,
geientxuenak saldu zituzten
iriyak eta karruak,
esanaz: «Orrek jetxiko dizkik
goi oitan diran arduak».
Garai artako aien abarkak
ziran basurde-larruak.

4

Milla zortzireun irurogei ta
zazpigarrengo urtian,
lenengo trena ikusi nuen
España'ko partian,
bire pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian;
perra berriyak erantxi dizte
andikan orañ artian.

5

Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla,
jakinduriya aundiya zuen,
entendimentu abilla;
gizonik eziñ asi liteke
zaldi obiaren billa:
goizian irten Irun'dik eta
illuntzerako Madrilla.

6

Danak alkarri lagun zaiogun
illundu gabe kopetik,
indar aundiyan dijuala're
gelditutzen da kolpetik;
iñor ezertaz biartzen bada
Donostiya'ra Madritik,
izugarrizko adelantua
jarriya dago Nortetik.

7

Linea orrek badauka zenbait
tunel, zubi ta erriyo,
bi birerekiñ ipiñi dute
sekulan baño berriyô,
eletrikako indarra eta
oinbeste guardarrayo;
gau eta egun gelditu gabe
beti zerbaiten karrayo.

8

Trenera lasai balijuake
egiñagatik zartzera,

iyo-biriak ederrak dauzka,
kotxian aixa sartze'a;
amar legua bire pasa ta
ordu beteko etxera,
lengo segunda beziñ ederra
dago oraingo terzera.

9

Eseri-alki ederrak eta
beste gauza bat on-ona:
ezertarako biartzen bada
kotxe bakoitzak komona;
lenguan antxen ikusi nuen
laroegi urteko amona,
frantzes euskaldun buru-zuri bat,
Bentaberri'ko Moñoña.

10

Karbonerarik ez dute biar,
fogonerorik ain gutxi;
or biar dana: begiyak ernai
eta llabiari eutsi;
abiyatzian iriki eta
allegatutzian itxi,
gau eta egun gelditu gabe
dabill txistu ta irrintzi.

11

Gizon abilla zan eletrika
sortu zuben maisu ori,
piska-piska bat arrek graduak
bajatu zizkan subari;
orañ indarra leku askotan
kendutzen zaio urari,
garai batian merke zan baño
gaur baliyo du ugari.

12

Onla esanaz ur irakiñak
egiten zuen negarra:
«Prezisua al da beti kalderan
kiskaltzen egon biarra?
Ez daukat beste alimenturik:

suba, kia ta txingarra;
ongi miatzen baldin banazu
otzian badet indarra».

13

Berari beira jarri zitzaion
zabaldurikan besuak,
arrazoi ori ontzat artu du
eletrikako maisuak:
«Badakit zure gau ta egunak
dirala lastimosuak,
ori egiya esan badezu
itzaliko dia suak».

14

Nere munduko jakinduriya
izan da oso azala,
Jangoikuari eskatzen diyot
arren argitu nazala;
garai batian ez genekiyen
eletrikarik bazala,
orañ ur otzak dabillki tren
len irakiñak bezela.

Bertsolariya, [1931-11-01]

JARDUERA2: Txirritak bere bertsoetan diona kontuan hartuz, zein aldaketa uste duzu ekarri zuela trenak herrira?

JARDUERA3: Ohartuko zinen, dagoeneko, bertsoen idazkera ez datorrela bat gure idazkerarekin. Txirritak bere garaiko idazteko era jarraituz egin zuen, garaian zeuden araei kasu eginez.

Eguneratuko al zenuke idazkera egun ditugun arauen arabera?

Bertsoei tiraka, Xenpelarrek ere baditu bertso batzuk trenbidea egitera etorri ziren frantsesei jarriak. Horiek ere eskaintzen dizkizue landu nahiko bazenituzkete.

**BURNI-BIDEAK EGITERA
ETORRI ZIRAN FRANTZESARI
JARRITAKO BERTSOAK**

Dozena bat bertsotan
nai nuke esplikatu
zenbat estranjero dan
Españian sartu;
lanbide au oraindik
gutxi det usatu,
uts-egiteak arren
argatik barkatu.

Frantzes asko ill dala
diote Austrian
beraz ez da onezkero
frantzesik Frantzian;
danak emen ditugu
oraingo aldian,
burnizko bide traste
oien aitzakian.

Frantzes da italiano
kasta oiek nasi,
onera etorri eta
dabiltza nagusi;
pegoiari ederki
lana egin-arazi,
berak pikoarekin
beñere ez asi.

Dala listero edo
dala sobrestante,
enpleo eroso ana
geienak badute;
jornalik aundienak
frantzesak dauzkate,
nunbait español danol
tontotzat gauzkate.

Lenago etortzen ziran
ofizialeak
ziran txorrotxale ta

pertz-konpontzalleak,
titiri-mundi eta
santu-saltzalleak,
gizonik formalenak
txikiratzalleak.

Orain etorri dira
klase danetatik,
bai gizonezko eta
emakumetatik;
ezin bialdurikan
oriek emendik
ibilli bear degula
deizkiot oraindik.

Badira oien artean
gizon onraduak,
batzuek aberatsak,
besteak bajuak;
baita beste batzuek
erale majuak,
garestitu digute
beñepeñ arduak.

Aspaldian ezin det
kendu nik buruti
urrengo grantzesada
ez degula urruti;
oiek ateratzea
gure erreñuti
kosta bear zaigula
uste det larruti.

Ezagunak dirade
guziak trajean:
lebita ta erlojua
beti gorputzean,
pantaloi lasaiak ta
bizarra okotzean,
beñere etzaie falta
pipa bat ortzean.

Oien linguajea
ona da berentzat,
munduan dan txarrena
nere ustez guretzat;
isasiko ez degula
sekulan deritzat,
itzik ere entenditzen
ez diot nik beintzat.

Iñori ere predarik
ez diot nai artu,
argatik aurrerago
ez nuke nai sartu;
baña al daneraño
garbi esplikatu,
egia ez du bear
iñork ere ukatu.

Azkeneko bertsoa
orra allegatu,
esan baño naiago
ez det nai luzatu;
norbaiti ez bazaio
bertso oiek gustatu,
frantzesia ez bada beintzat
bear dit barkatu.

28. NORTEKO TRENAK EKARRITAKO ALDAKETAK

1864an hasi zen martxan trena. Lehenago itzainek gobernatutako gurdiak ziren jendearen eta produktuen garraio bideak.

Trenak azkar ordezkatu zituen. Beraz, ordura arteko bizimoduan eragin handia izan zuen.

Beste hainbat eragin izan zituen, era berean. Lehen aipatu dugu trenbidearen ibilbidea egiteko Oiartzun ibaiaren ubidea estutu behar izan zutela.

Ondoren, Lezorako bideari “Estazio bidea” izena eman zitzaion. Trenbidearen ondoan auzo berri bat sortu zen, auzo hari “barrio de la estación” izena eman zitzaion.

Antza, trenbidearen ibilbidearen gainean irizpide desberdinak izan ziren. Trenbidea portuan zegoen Real Compañía Asturiana de Minas lantegitik igarotzea nahi zen. Ibilbide horrek herriari erakarriko zizkion ondorioak zirela medio, beste hainbatek trenbidea herriaren hegoaldetik, egun topoko bide ingurutik, pasatzeko proposamena egin zuten. Trenbidea, azkenik, diseinatuta zegoen bidetik egin zen. Eta horrek aldaketa esanguratsu bat ekarri zuen, zubi bat eraiki beharra.

Izan ere, trenak Altzate ingurutik Matxingo lurmuturrera igaro ahal izateko Oiartzun ibaiaren gainetik igaro behar zuen, ibaia portuko uretan sartzen den parean, gutxi gorabehera. Burdinazko zubia eraiki zuten trena pasatzeko, eta, ondorioz, dagoeneko nahikoa mugatua zen itsasontzien pasaera itxita geratu zen betiko, zubiak zuen altura zela-eta.

Hasierako tren haiek lurrunezkoak ziren, ikatza behar zuten. Geroago, 1929an sartu zuten argindarra. Kea desagertzeaz gain, horrek trenak abiadura handiagoz ibiltzea ahalbidetu zuen.

29. TOPOA

Urte batzuk geroago, 1912an, gaur egun *Topoa* izenez ezagutzen dugun trena eraiki zen. Hasiera batean, “Ferrocarril de la Frontera” izena eman zitzaion, Hendaraino heltzen baitzen.

Topoa trenbide estuko trena zen. Bere ibilbidearen %20 lur azpitik egiten zuenez, berehala jendea *topo* deitzen hasi zen.

Hainbeste tunel izanik, topoaren lurrunak tunelak kez beteko zituen beldurrez, hasiera-hasieratik argindarraren bidez ibili zen.

Topoak behar zuen argindarra sortzeko, Marin zubiko saltoa baliatzen zen, hark 800 zaldiko indarra sortzen zuelarik. Horiek, tentsio handiko lineetatik herriko geltokian, topoko garajeen alboan, eraiki zuten zentral elektrikorira iristen ziren.

Egun Amarraino iristen bada ere, hasieran Gipuzkoa plazaraino iristen zen, Peñafloresta kaleraino, zehazki, horretarako Donostiako hainbat kale zeharkatzen zituelarik.

Errepidea, hala ere, kompetentzia latza izan zen trenbidearentzat. XX. mendeko 70eko hamarkadan tren estuko bideak, pixkanaka, ixten joan ziren. Topoa izan zen bere zerbitzua eteten azkena, 1973an.



Urte batzuk geroago, berriro ipini zen martxan. Urte horietan geltoki berriak zabaldu dira, linea Lasarte-Oriaraino luzatu da, Bilboko trenbidearekin lotu da eta zerbitzua zabaldu da. Gaur egun, herrian gehien erabiltzen den garraio zerbitzua da.

Hasieran, esaterako, topoak geltoki bakarra zuen herrian. Ondoren, 1982an, Galtzarabordako geltokia zabaldu zuten. XXI. mendearen lehen hamarkadan, berriz, Fanderiako zabaldu zen.

Liburuxkan Topoaren makina duzue, herriko geltokian.

30. TREN TXIKIA

Oiartzunaldetik zetorren meategietako trena zen. 1901ean eraiki zen, eta Arditurriko meategiak eta Pasaiako portua lotzen zituen. Han, Cavelier motako zubi handi bati esker, bagoiak irauli eta zuzenean itsasontzietako sotoetara husten zen mea. Trenbideak, errailen artean 0,75 m. zabalera zuen. Bere jarduna 1965ean eten zen.

Gure herrian hainbat zubi zituen trenak, ezagunena Arangurenen eta Fanderia inguruan zegoena zen, eta “puente peligroso” deitzen zitzaiona. Haren arrastoak ikus litezke oraindik autopistak Oiartzunen duen peajearen inguruan, bidegorrian.

Tunelak ere bazituen, luzeena Sorgintxulokoa, 220 metrokoa.

Tren horrek herrian zehar egiten zuen ibilbidearen aztarna gehienak desagerturik daude. Galtzarabordako topoko geltokira joateko pasabidea da zubi haien lekuko bakarra.

Bestalde, trenbide horren zati gehienak bidegorri bihurtuta daude egun. Oiartzundik datorren bidegorri zatiaz gain, Pontika atzealdean dagoen bidegorria eta Miguel Irastorza eskolako behealdean dagoen pasabidea, tren txikiaren trenbidea izan ziren.

Trenbideak igarotzen ziren herriek garapen handia ezagutu zuten XX. mendean.

Jendea eta ekoizten ziren produktuak edo haien ekoizteko behar ziren lehengaiak garraiatzeko modu azkarrena eta merkeena bilakatu zelako, batik bat. Trenaren arrimuan hazi ziren XIX. mende amaierako eta XX. mendeko industri iraultza oparoena bizi izan zuten herri gehienak.

JARDUERA: Aukeratu esaldi bakoitza zein treni dagokion.

Koadernoko 14. orrialdea.

31. DONOSTIAKO AUTOBUSAREN AURREKARIAK

Azter dezagun orain Donostiako autobusak zein bilakaera izan duen. Izan ere, herritik Donostiara joateko zerbitzua aspalditik egonik ere, autobusaren aurretik beste hainbat ibilgailu izan ziren.

1888ko ekainaren 13an zabaldu zen Donostia eta gure herriaren arteko lehen linea. Zehazki, Benta-Berriraino heltzen zen, guztira 10,201 km.

Herrian, Biteri kaletik barrena sartzen ziren, ibilgailuak Biteri txikitik jarraitu, zumardian barrena joan, kiosko inguruan buelta eman eta berriro Biteri txikitik barrena joaten ziren Donostiara.

Lehen garraio hura animalia bidezkoa zen; hau da, zaldiek mugitzen zituzten nolabaiteko autobus haiek.

Haiek, argindarrez mugitutako tranbiek ordezkatu zituzten, 1897an.

Tranbia hori, *tranbia txuria* izenez ezagutzen zuten herritarrek. Horrela bereizten zuten topotik, hura egur ilun kolorekoa baitzen.

Garai hartako Donostiarrentzat eta udatiarrentzat ohitura bilakatu zen herrira tranbiaz etorri, patata soufflé ospetsuak jan, zumardiko eta inguruko tabernetako itzalean txokolatea hartuz lasai giroan hizketalditxo bat izan eta Olibet gailera zorroak erosi ondoren, atzera berriz Donostiara itzultzea.

Hainbat urtetan ibili ziren tranbia haiek. 1953an ordezkatu zituzten trolebus berriek. Horiek, argindarrez mugitzen ziren autobusak ziren. Horretarako, autobusak sabaian zuen kakoa ibilbide osoan zituen kableetara konektatzen zen. Topoak egun duen sistemaren antzekoa.

Azkenik, 1973an, trolebus haiek ordezkatu zituzten erregaiez mugitzen diren autobusek.

Liburuxkan ikus dezakezuen argazkian, herritik Donostiara zihoan tranbiaren bidea ikus dezakezue, baita hariteria elektrikoa eta lineako autobusa iragarki eta guzti. Bizkarrez ageri den gizona, eskuan makila duena, udaltzaina da.



Bigarren argazkia, zumardia erdibituta zegoen garaikoa da. Bertaraino iristen zen Donostiako autobusa eta han ematen zuen buelta bidea berriro hasteko. Argazkiaren erdian garaiko udaltzaia ikus dezakezue, autobusari maniobra egiten laguntzen.

Hirugarren argazkia, berriz, Biteri kaleko 1. Zenbakiko horman aurkituko duzue. Garraioari buruzko plaka oroigarria da.

32. ZUMARDIA BANATZEN ZUEN ERREPIDEAK

Urte askotan, Biteri-txiki kalea herriko irteera izan zen, errepide nagusirako irteera. 1847an herria zeharkatu zuen errepidea eraiki zuten. Horretarako harresia puskatu eta egungo Biteri-Txiki kalea egiteko hainbat etxe bota zituzten. Ondorioz, Zumardia bitan banatuta gelditu zen, Zumardi Handia eta Zumardi Txikia, eta batetik bestera joateko errepidea igaro behar izaten zen.

Donostiatik zetorren garaian garaiko garraioak hantxe zuen geltokia.

XX. mendearen amaieran oinezkoentzako bihurtu zen zati hori eta autobus geltokia errepidearen beste aldera, ibai ertzera, pasa zen.

Horren guztiaren oroigarri plaka bat dago Zumardiak eta Biteri-txikiak izkin egiten duten etxearen horman.

XX. mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, auzoak erdigunearekin lotzeko hainbat autobus zerbitzu ezarri ziren.

Gaur egun herriko garraio zerbitzuek hainbat aukera eskaintzen dizkigute beste herri batzuetara joateko. Jarraian proposatu dugun jarduerak garraio horien ezaugarrietan, eskaintzan, gehiago sakontzeko helburua du. Joan nahi dugun helmugaren araberrako garraioa aukeratzea, ordutegia kontuan izatea, prezioa eta abar.

Horretarako hainbat lekutara “joatea” proposatuko diegu. Taldeka lan egiteko jarduera aproposa izan liteke.

Ondoren, taula betetzeko datuak biltzea eska diezaiekegu.

JARDUERA1: Batetik bestera ibili behar duen lagunak laguntza behar du!

Koadernoko 15. orrialdea.

Urrats bat haratago eman nahi izanez gero, lauko taldetan jartzeko proposa diezaiekegu. Taldea osatu ondoren, gainerako taldekideentzat irteera baten antolaketa egitea proposa diezaiekegu.

Antolatzerakoan, hara joateko aukera desberdinak, ordutegiak, prezioak, erosotasuna eta abar kontuan hartzea eskatuko diegu. Ondoren, aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertzeke esango diegu.

Taldea bi azpitaldetan banatuko dugu; hau da, bi laguneko bi talde. Talde bakoitzak gainerako lagunei bere plana azalduko die. Gero, planak dituen abantailen eta desabantailen jakitun, bezeroak konbentzitu beharko ditu bidaia proposatutako eran egiteko. Azkenik, eta bi taldeak entzun ondoren, bezeroek plangintza baten alde egin beharko dute. Hautuaren zergatia azaltzeko eska diezaiekegu.

Komenigarria litzateke plangintzaren datuak idatziz jartzea. Beraz, informazioa sistematizatzeko modua aztertu eta hautatu beharko dute: taulak eginez, eskemak eta abar.

JARDUERA2: Prestatu txangoa bezeroentzat. Aztertu aukera bakoitzaren abantaila eta desabantailak. Ondoren, saiatu bezeroek zuen aukeraren alde egin dezaten.

33. MENDIAN GORA

Ezaguna da betidanik herrian izan den mendizaletasuna. Urdaburu Mendi Elkarteak arduratzen da zaletasuna zaindu eta areagotzeaz.

Urdaburu 1942an sortu zen. Ordutik, hamaika mendi irteera eta ekitaldi prestatu dituzte, adibidez: urtero antolatzen duten argazki lehiaketa, mendiarekin zerikusia duten irteera didaktikoak, orientazio martxak, perretxiko bilketak, oinarrizko eskalada ikastaroak, mendi-bizikleta eta abar.

Bestalde, Urdaburuk urtero mendi astea antolatzen du azaroko azken astean. “Bizarain Roll Ski Igoera” izeneko lasterketarekin ematen diote hasiera.

Urdaburu Mendizale Elkarteak badu eskola adinean dauden haur eta gazteen artean mendizaletasuna bultzatzeko saila. Sail hori, 1992an sortu zuen Urdaburu elkarteak bere sorrerako 50 urteak betetzen zituela probestuz. Urte hartan, Eskola Mendizaletasuna lehiaketan parte hartzea erabaki zuten eta horretarako Orereta



ikastolarekin harremanetan jarri ziren eta hango 34 neska-mutil biltzea lortu zuten.

Hurrengo ikasturtean, urtero egiten duten ikasturte amaierako irteera ezarri zen.

Eskola Mendizaletasuna Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen ekimena da. 1995etik ordura arte banatzen zituen dominak banatzeari utzi zion. Hala ere, herriko mendizale gazteek ikasturtero dominak jasotzen jarraitzen dute. Izan ere, Urdaburuk banatzen ditu ordutik, izena grabatua dutelarik.

JARDUERA: Eta zuek gogokoa al duzue mendia? Zein menditara joan zara?

Koadernoko 16. orrialdea.

34. HERRI KIROLAK

Orain herri kirolak ikusteko aukera ia bakarra festetan bada ere, ez da beti horrela izan.

Joan den mendeetan, jendea igandeetan Zumardian biltzen zen eta han egiten zituzten azokak eta baita herri kiroletako erakustaldiak. Inguruko herrietatik jende asko etortzen omen zen, eta giro bikaina izaten omen zen.

Geroago, Foru plazan egiten ziren gisa horretako jai eta erakustaldiak. Gaur egun kioskoa dagoen inguruan. Izan ere, kioskotik topoko geltoki aldera, garai hartan, azoka baitzegoen.

Egun, azoka zaharreko atzealdean dago probalekua. Urtean zehar autoek aparkatzen dute, Madalen jaietan idi demak eta abar bertan egiten dira.

Herrian badugu herri kiroletan dabilen hainbat lagun ezagun.

Horien artean Joseba Ostolaza dago. Bost urtez Euskadiko Txapelduna izan da harria jasotzen.

Garai batean, XX. mendearen amaieran sokatirak indarra izan zuen herrian. Urte batzuetan lau talde izatera iritsi ziren: Auzolan, Landare, Arrano beltza eta Lagunak.

Haietatik, egun, bakarrak jarraitzen du, Auzolanek. 1982 urte inguruan sortutako taldea, Gipuzkoako sokatira talde ofizial bakarra da. Auzolan Zamalbide auzokoa da eta bertako pilotalekuan entrenatzen dute.

Liburuxkan duzuen argazkian, Auzolanen nesken taldea duzue.

JARDUERA1: Ipini kirol bakoitzari bere izena

JARDUERA2: Azalduko al zenuke nola aritu behar duen sokatira talde batek eta zein arau dituen tiraldiak?

Koadernoko 16. orrialdea.

Ikasleekin Herri kiroleko jokoetan ibiltzea proposatu nahi dizuegu. Ikasleek berek antola dezakete, talde bakoitzak joko bat, adibidez. Nahi baduzue Ulibarri programan hainbat jokotako fitxak aurkituko dituzue.

Nahi izanez gero, herriko ikastetxeen arteko lehiaketa antola dezakezue.

JARDUERA: Antolatu zuen jokoak eta aurrera, ongi pasa!

35. PILOTAKADAKA

Pilotak garrantzia izan du gure herrian, pilotari garrantzitsuak eta ezagunak izan ditugu.

Pilotari horiek lehen pilotakadak herriko pilotalekuan eman zituzten, noski.

XIX. mendean, Errebaleko plaza (gaurko Foru plaza) pilota-toki gisa erabiltzen zen. Ez zuen erabilera bakarra, zenbait egunetan barazkien eta azienden azoka ireki gisa erabiltzen baitzen. Pilota-toki horren garrantzia handituz joan zen, baina bistan denez baldintzak ez ziren aproposenak. Horregatik, 1883an pilota jokoa udalerritik kanpora, itsasoari irabazitako lurretan, egingo zen pilotaleku berri batera eramatea eta Errebaleko plazan azoka estali bat eraikitzea erabaki zuten.

Pilotaleku hori 1884an inauguratu zen, eta 120 urte iraun zuen zutik. XXI. mendean hasieran eraitsi zuten. Haren lekuan Niessen merkatalgunea eraiki zuten.



Udal pilotaleku hura harlanduzko hiru hormen gainean eraiki zen eta altua eta zabala zen. Hormaz kanpo zegoen zatia luzean jokatzeko erabiltzen zen. Aldaketa ugari egin zizkioten urteetan zehar. Lehena, XX. mendearen hasierakoa izan zen, luzean jokatzeko erabiltzen zen zatian Biteri eskola (gaurko Koldo Mitxelena) eraiki baitzen.

Pilotalekua txikitu egin zen. Garai berean hedatzen ari zen joko-garbi izeneko pilota modalitaterako egokiak ziren neurri berriak. Hala, xistera izeneko eskularrua erabiltzen zuen joko mota horretan trebatu ziren herriak izan dituen pilotari onenak eta ospetsuenak.

Herriko pilotari handienak 1863tik 1870era aritu ziren, eta sekulako arrakasta lortu zuten herrian ez ezik baita Ameriketara ere. Horietako batzuk izan ziren Victoriano Ganborena, Eusebio eta Meltxor Guruzegaga, Luis Samperio, Miguel Goenaga, Vicente Elizegi, Valentin Belamendi *Garibaldi*, Cosme Etxeberria eta Juan Etxebeste, besteak beste.

Horien artean, Samperio, Ganborena eta Elizegi izan ziren herriari ospea eman dietenak euskal kirolaren alorrean.

Pilotari horiek guztiak joko-garbian aritu ziren. Modalitate horren garapena izan zen zesta punta, tresna horrek xistera ordezkatu zuelarik. Antza, Meltxor Guruzegak asmatu zuen zesta punta pilota jokoakoa.

Pilotaleku zaharraren lekuan, Fanderriako Udal Pilotalekua eraiki zuten Fanderia auzoan. Pilota eskola ere bada bertan.

Herriko pilotazaleek badute beren elkartea: Erreterriako Pilotaren Lagunen Elkartea, hain zuzen.

JARDUERA: Gaur egun ba al daude pilotaleku gehiago, non?

Koadernoko 17. orrialdea.

36. ARRAUN!

Itsas bazterreko herria izanik, lotura estuak izan ditu herriak itsasoarekin. Izan genuen herriko nabigatzaileen berri, herriko ontzioletan eraiki ziren itsasontzien berri eta abar.



Urteen joanean lotura hori lausotuz joan bada ere, garaian garaiko herritarrek era batera edo bestera nahi izan dute itsasora begiratu.

Begiratzeko era horietako bat izan da arrauna.

Patxi Sistiaga Eizagirre, *Santa Ana*, herrian bizi zela baliatuz, 1952an orduko alkateak behin eta berriz eskatu zion traineru bat antolatzeko.

Inguruko herrietako mutil koadrila bildu eta lan gogorra egin zuen haiekin.

Hurrengo urtean Kontxako estropadetan parte hartu zuten, bosgarren lekua lortu zutelarik. 1954an, berriz, seigarren egin zuten. Aldrebeskeria batzuk medio, trainerua desagertu egin zen.

Urte batzuk geroago, Kontxan herriko beste traineru bat aritu zen, Etxabe sanjuandarra patroiz zuela. Hark ere bereak egin zituen, ordea.

1987an Hibaika elkartean egindako bilera batean herritarrek arraun elkarte baten eskaria egin zuten.

Zailtasun handien artean, baldintza kaxkarretan zegoen traineru bat hartu, pixkanaka konpondu eta uda horretan bertan entrenatzen hasi ziren. Urte horretako Kontxako estropadan aritu ziren.

Herritarren eta herriko dendarien laguntzaren ondoren, Udalak Ondartxoko hiltegi zaharra Hibaikari uztea erabaki zuen Arraun eskola sortzeko baldintzarekin. Eskola, 1989an zabaldu zen “Ur Jardueretarako Ondartxo Udal Zentroa” izenarekin.

Herriko lehen traineru haietan mutilek soilik egiten zuten arraun. Hibaikan, neska eta mutilak aritzen dira arraunean infantil, kadete, jubenil eta senior mailetan.

Liburuxkan Hibaika Arraun taldeko mutilen trainerua duzue.

JARDUERA1: Ba al dakizu zein koloretakoa den Hibaikako trainerua?

JARDUERA2: Zergatik ote du kolore hori?

JARDUERA3: Herri kirolek antzinako lanbideetan dute jatorria. Zein lanbidetatik eratorri ote da arrauna?

Koadernoko 17. orrialdea.



37. BALOIAREKIN FUTBOLEAN

Garai batean hainbat futbol talde izan ziren herrian: Gimnastika, Lagun-arte, Euzkalduna, On-bide, Estrella, Rapid, Trinchera, Renteria, Tortuga eta abar. Denboraren joanean, ordea, denak desagertu ziren. Touring, 1923an Rosa Esnaolak zuzentzen zuen eskolako talde batek sortu zuen. Eta talde hori da, gaur egun irauteaz gain, gure herriko talde batek inoiz lortu duen mailarik altuena eskuratu duena: Bigarren B maila.

Touring Futbol Kirol Taldearen ezagutzen den lehenengo argazkia

duela urte asko desagertu zen On-bide futbol zelaian (orain Patxiku zelaia dagoen lekuan) ateratakoa da. Taldeak honako jantzia zuen: elastiko zuria lepoalde eta eskumutur urdinekin, galtza beltzak, eta galtzerdiak eta zapatak norberak ahal zituen bezalakoak. Atezainak, berriz, jertse zuria.

Talde horrek, areriotzat herriko beste ikastetxeetako taldeak izan zituen, esate baterako Biteri eskolakoak, Jesusen Bihotzeko anaiak eta abar.

1925ean, berriz, hauxe zen jantzia: elastiko gorria, eskapulario horiarekin, galtza beltzak marra zuriekin bueltan eta oinetakoak, benetako botak. Jantzera, beraz, futbol talde handi batena zen.

Izenaren jatorriaz hiru bertsio daude. Lehenaren arabera, urte hartan Atotxatik Budapesteko Touring eta Vienako Rapid igaro ziren. Garai hartan jaio ziren herriko bi futbol taldeei izen horiek jarri zizkioten.

Bigarrenaren arabera, ordea, taldearentzat izena aukeratzeko zeregina zuen lagun taldea Zumardian eserita zegoela, "International Touring Club" idatzita zeraman ibilgailu bat igaro omen zen; kluba baziren jada, nazioartekoak izatera iritsiko omen ziren... beraz, Touring bakarrik falta zitzaielako aukeratu omen zuten izena.

Hirugarrenak dioenez, papelerara ore bilakatzeko iristen ziren hainbeste egunkari eta aldizkariren titularrak langileen buruan itsatsita gelditu eta hortik etorriko omen zen izena.

Ia hastapenetatik jantziaren koloreak hauek izan ziren: elastiko gorria, galtza urdin ilunak. Eskudoak baloi bat dauka goialdean eta kolore gorria eta urdina, banderak dituen berak, alegia.

Lehenengo garai haietan, ekipoa herriko jokalariz soilik osatu zen eta inolako diru



baliabiderik gabe. Jokalariek dirurik ez irabazteaz gain, beren patrikatik ordaintzen zituzten bidaiak.

Oso sustraiturik zegoen Touringa herrian. 1950ean hasi zen tradizioak urte askotan iraun zuen, Zumardiko igandetako dantzak iraun zuen bitartean, hain zuzen. Touringak garaipena lortzen zuen bakoitzean, Udal Bandak futbol taldearen ereserkia jotzen zuen dantza saioaren amaieran. Dantzan ari zirenak, garai hartako herriko eta inguruko gazte gehienak, saltoka eta kantuan jarraitzen zuten bandaren doinua.

Jarraitzaile asko zituenaren adibide da, Iruñeko Oberena taldearen aurka lehiatzeko partidua ikustera herritik 12 autobus bete-beteak joan zirela. Horiekin batera beste autobus bat joan zen, ekipoarekin eta zuzendaritzakoekin.

Badira beste futbol taldeak herrian, horien artean Beti Ona.

Egun herriko futbol zelaia Fanderian dago. Touringen zelaia, lehenago, Lartzabalgo futbol zelaia izan zen.

Lartzabalgoa 1912an inauguratu zuten ofizialki. Urte asko pasa behar izan zuten aldagelak eta dutxak izateko. Bitartean, partiduaren ondoren atzetik igarotzen zen Oiartzun ibaian garbitzen zituzten izerdiak jokalariek.

2000an hondeamakinek zelaian sartu ziren eta gaur egun dauden etxeak eraiki zituzten. Orduan desagertu zen Lartzabaleko futbol zelai historikoa.

JARDUERA1: Idatzi ezagutzen dituzun herriko futbol taldeen izenak:

JARDUERA2: Futbolari ezagunak izan ditugu herrian. Ea zenbaten izena biltzen duzuen.

Koadernoko 18. orrialdea.

38. BALOIAREKIN ESKUBALOIAN

Indar handia izan zuen kirol honek gure herrian. XX. mendearen erdialdean, eta Ereintza Eskubaloi taldea ere sortu zen Gipuzkoan eskubaloia egiten hastearekin batera. Horregatik, Gipuzkoako eskubaloi talde zaharrenetakoa dela esan genezake.

Orditik, Ereintzan aritutako jokalaria askok eskubaloiko maila altuenetara iritsi dira,

bai hemen eta baita Europan ere. Adibidez, Juantxo Villareal, Gabriel Mitxelena atezaina, Jose Ignacio Elizetxea, Jose Ignacio Altube, Reyes Carrere, Amaia Ugartemendia, Amaia Ramirez eta abar.

Udal pilotaleku zaharrak zutik iraun zuen bitartean han jokatzeko ziren partiduak igande eguerditan.

Ereintza aitzindaria ere izan zen emakumeen eskubaloi taldeak antolatzen. Hori, XX. mendeko 70eko hamarkadan gertatu zen.

Herrian kirol hau zein mailataraino zegoen errotua ikusteko adibide egokiena, hainbat urtez, auzoetako eskubaloi taldeen arteko lehiaketak antolatu izana da.

Urte horietan izan ziren herrian beste eskubaloi talde batzuk. Horien artean, indar handiena izan zuena Oarso Eskubaloi Taldea izan zen.

JARDUERA: Zein da eskubaloiak egin duen ekarpen garrantzitsuena?

Koadernoko 18. orrialdea.

39. ATLETISMOA

Club Atletico Renteria (CAR), 1957an sortu zen. Aurretik, hainbat herritarrek atletismoarekiko zuten zaletasuna ikusirik, zenbait talde eta elkarte saiatu ziren atletismoa babesten.

Hala, Touring eta Renteria Kirol Taldeek, Luzuriaga lantegiak, Luises ikastetxeak edo Urbaduru Mendizale Elkarteak bazituzten haien artean atletismoa egiten zuten lagunak.

Hala ere, atletismoak herrian zuen presentzia ikusirik, kaleko giroak atletismoko talde bat eratzea eskatzen zuen.

Garai hartan, jendearentzat atletismoko gune nagusia Gabierrotako pista zen, herriko zenbait kalerekin batera: Biteri kaleko probak, Patxo Egurrola eta Miguel Peña Memorialak eta abar.

Liburuxkan horren guztiaren lekukoak diren argazkiak dituzue, Zumardian eta



beste hainbat kaleetan egin ziren lasterketen argazkiak, hain zuzen.

XX. mendeko 60ko hamarkadan taldea errotu eta sendotu zen, atletismoan goi mailako helburuak lortu zituztelarik. Inguruko taldeekin egindako elkarlanari esker, gainera, Ibaiondo sortu zuten.

CAR aitzindaria izan zen atletismoan emakumeen parte hartzean.

Joan den mendeko 80ko hamarkadan atletismoak beste loraldi bat ezagutu zuen gure herrian. Loraldi hori, neurri handi batean, ikastetxeetan egindako lanaren emaitza izan zen. Izan ere, eskola kirolaren garapena bultzatu zen, eta horren barnean atletismoa sustatu zen, batik bat.

Mende horretako 90eko hamarkadan CAR-ek EAeko talde handiekin mailakatzea lortu zuen.

Atleta ospetsuak aritu dira herriko atletismo taldean, hain artean ezagunena Mikel Odriozola.

Taldearen barruan dago Errenteriako Atletismo Eskola, han aritzen dira herriko adin txikiko atletak. Eskolaren helburua, herriko gazteen artean atletismoa sustatzea eta edozein eskola-umeri atletismoa egiteko aukera ematea da.

Herriko atleta horiek denak Beraungo Atletismo pistan entrenatzen dira.

JARDUERA1: Ba al dakizu non dauden atletismoko pistak?

JARDUERA2: Guk argazkiak ipini ditugu. Lagundu bilduma osatzen kirolen izenak ipiniz.

Koadernoko 19. orrialdea.

40. TXIRRINDULARITZA

Txirrindularitzak ere ospe handia izan du herrian. Jarraitzaile asko izateaz gain, hainbat herritar txirrindulari ospetsuak izan dira, baita nazioarte mailan ere.

Touringek izan zuen txirrindularitza sail bat. Sasoi hartan, talde on bat osatzea lortu zuten Mitxelena, Ganzarain, Lopetegi eta Bidaurreta anaiekin. 1949an Touringa izan zen Gipuzkoako Txirrindularitza Txapelketako maila guztien antolakuntza lanak bere gain hartu zituena,

1961-1962 denboraldian txirrindularitzako sailak merkatal etxe baten babesari esker Touring-Caobania talde berria sortu zuen. Talde horretako partaide izan ziren Luis Otaño eta Txomin Perurena txirrindulariak.

Horiekin batera, Periko Matxain izan da herriko txirrindulari ezagunenetakoa.

Bestalde, Frantziako Tourra bi aldiz igaro da herritik, 1949an eta 1993an, hain justu.

Egun bi txirrindulari talde daude: Laguntasuna eta Biteri.

41. BESTE KIROL BATZUK

Orain arte aipatutako kirolez eta taldeez gain, badira herrian beste talde batzuk eta beste kirol batzuetan jarduten dutenak.

Boxeolariak ditugu herrian, baita saski baloian, areto futbolean eta igeriketan aritzen diren taldeak, Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarte eta Oiarso Saski baloi taldea, adibidez.

Judoan aritzen dira Sayoa Judo Taldekoak eta txakurkrosean Txakurkrosa Oarsoaldean taldekoak.

Xakelariak ere badira. Asociacion Fomento Cultural taldean biltzen dira.

Talde horiek denak kirol horiek herritarren artean sustatzeaz arduratzen dira. Horretarako hainbat lehiaketa eta jarduera antolatzen dituzte. Esaterako, Gamon zumardian Xake biziduna antolatu izan da.

42. GU ERE KIROLARI

Aztertu dugu herrian dauden kirol taldeak eta egiten diren kirolak. Jarraian hainbat jarduera proposatuko ditugu ikasleek beren aldetik kirolak beren bizitzan duen presentzia azter dezaten.

JARDUERA1: Zein kirol egiten dituzu zuk?

JARDUERA2: Herriko zein kirol instalazio ezagutzen dituzu?

JARDUERA3: Aipatu ditugun kirolez gain, ezagutzen al duzu herrian egiten den beste kirolik?

Jarraian gelan galdeketa bat egitea proposatuko dizuegu. Egiten dituzten kirol motak eta bakoitzean zenbat ikaskide aritzen diren kalkulatzeko eskatuko diegu, neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Datuekin piramidea osatzeko eskatuko diegu.

Azpiko marra horizontalean lagun kopurua adierazteko erreferentzia dute. Kirol bakoitzarentzako kolore bat aukeratzeko esango diegu, eta alboan kirol bakoitza bere kolorearekin identifikatzeko.

Piramidea osatzen dutenean, nahi izanez gero, datuen gaineko irakurketa egin lezakete. Adibidez: zein da neskek gehien egiten duten kirola? Mutilek gutxien egiten dutena, eta abar.

Datuak ehunekotara pasatzen ikasi badute, amaieran, kirol bakoitzeko partaideak ehunekotan adierazteko eska geniezaieke.

JARDUERA4: Galdetu gelan: zein kirol egiten dituzue eta zenbatekin egiten dituzue? Horietatik zenbat dira neskak eta zenbat mutilak? Datuekin osatu piramidea.

JARDUERA5: Herriko zein kirolari ezagutzen dituzu?

Koadernoko 20. orrialdea.

JARDUERA6: Piramidea osatuta duzu. Orain datuak irakurtzen saia zaitez. Hari begira zein ondorio aterako zenituzke?

JARDUERA7: Piramidean dituzun kirol bakoitzean parte hartzen duten lagunen kopurua ehunekotan eman.

43. SARA CARRACELAS GARCIA

1981eko irailaren 15ean jaio nintzen. Erditze unean izandako arazo baten ondorioz garun-paralisia dut.

Errehabilitazio gisa igerian hasi nintzen 4 urtekin. Lehiaketetan parte hartzen



hasteko esan zidaten 13 urte nituela, eta nik ezetz esan nien. Amonak “zuk nahi baduzu joan, atsegin baduzu jarraitu, eta bestela utzi dezakezu, erraza da” esan zidan. Eta hala egin nuen.

Dagoeneko lau Paralinpiar Jokoetan parte hartu dut: Atlantan, Sydneyn, Atenasen eta, azkena, 2008an Pekinen. Han, brontzezko domina lortu nuen eta munduko errekorra egin nuen 50 metro bizkar estiloan.

Lehen ikasketak Kristobal Gamon ikastetxean egin nituen. Ondoren, Koldo Mitxelena informatika modulu bat egin nuen.

Goizez GUREAKen lan egiten dut web orriak diseinatzen, eta arratsaldean igerian entrenatzen naiz. Nire taldea, Dordoka Kirol Elkarte da.

Herrian aintzat hartu dute nire lana. 2007ko Madalen jaiei hasiera emateko txupinazoa nik bota nuen. Gainera, 2009an Sara Carracelas igeriketa egokituko txapelketa antolatzen hasi ziren.

JARDUERA: Amonak aholku baliotsua eman zion Sarari. Zein aholku emango zenioke zuk?

Koadernoko 21. Orrialdea

44. LUIS OTAÑO

Luis Otaño Arzelus, 1934ko urtarrilaren 26an jaio zen.

1957an hasi zen txirrindulari profesional gisa. Aurretik ziklo-krosean ere aritu zen eta espezialitate horretako mundu mailako lasterketa batean aritu zen.

Espainiako itzulian egindako lanagatik egin zen, batez ere, ezaguna. Hamarkada batean lasterketa horretako goiko postuetan ibili zen. Hiru etapa irabazi zituen eta 1964ko bueltan maillot horia irabazi eta bost egunez izan zuen. Azkenik, jeneraleko bigarren postua lortu zuen, Raymond Poulidor txapeldun frantziarretik 33 segundura.

Frantziako Tourreko 10 lasterketetan parte hartu zuen, 1958 eta 1967 artean, hain zuzen. 1966an etapa bat irabazi zuen.



Txirrindularitza utzi zuenean, 1969an, Biteri kalean dagoen Otaño burdindegia zabaldu zuen.

Ondoren, Luisi egindako elkarrizketak eta hari buruzko erreportaia dituzue.

<http://www.kronika.net/index.php?&Sec=03&Cod=126&Act=05>

www.argia.com/argia-astekaria/2229/luis-otano/oso

www.erreterria.net/es/ficheros/40_4638es.pdf

45. JESUS MARI ZAMORA ANSORENA

1955eko urtarrilaren 1ean jaio zen.

Errealean jokatu zuen 1974tik 1989 arte. 1980-1982 urteetako talde mitikoaren partaide eta joko-zuzendaria izan da, bi Liga txapelketa eskuratu. Izan ere, Zamorak Erreala ligako txapeldun bihurtu zuen urrezko gola sartu zuen Xixonen (Espainia 1981ko apirilaren 26an).

Gainera, Superkopa eta Errege Kopa erdietsi zituen 1982an eta 1987an.

Errealararekin 588 partida jokatu zituen eta 79 gol egin zituen. Espainiako futbol selekzio nazionalarekin, berriz, 30 norgehiagotan aritu zen eta 3 gol egin zituen.

Jarraian Zamorari eginiko elkarrizketa eta wikipedian hari buruzko informazioa duzue.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Jesus_Maria_Zamora

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1251/jesus-mari-zamora-10a-bizkarrean-eta-buruan>

46. REYES CARRERE ZABALA

1966an jaio zen. Bera eta bere bikia sei anaia-arrebetan gazteenak dira.

Txikitandik izan da kirolzalea. Auzoan hasi zen kirola egiten, garai hartan oso eskola kirol gutxi zegoelako, eta zer esanik ez neskentzat.



Bere eskolan, hain zuzen, ez zegoen neskontzako eskola kirolik.

Horregatik nahiko berandu hasi zen, 15 urtekin, zehazki, bere ahizpa zaharragoa den Anak animaturik. Ereintza taldean aritu zen estreinakoz.

Hiru urtez aritu zen herrian jokatzeko. Ondoren, 18 urte zituela, Ohorezko Mailan jokatzeko aukera izan zuen Hernaniko taldearekin.

Askok gustatzen zaio lehiatzea, eta beharbada horregatik erakarri zuen hainbeste eskubaloiak.

Kirolerik aparte, bere bizimodu normalean, ez omen da batere lehiakorra.

Hamabost urte aritu zen jokalaria modura goi mailan eta beste bederatzire urte entrenatzaile lanetan.

Akaba Bera Bera da bere bihotzeko taldea, eta bertan eman ditu urte gehienak, nahiz eta kanpoan ere aritu den (Valentziako Astroc Sagunto taldean). Goranzko bidea egin eta lehendabiziko titulua lortu zuen.

47. AMAIA UGARTEMENDIA SAGARZAZU

1966ko ekainaren 9an jaio zen. Eskubaloia jokalaria ohia da, Akaba Bera Beran aritu zena.

1992ko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen, 7. postua lortu zuten eta diploma olinpikoa eskuratu zuten.

Ereintzako lehen emakumezkoen taldeko kide izan zen eta handik egin zuen jausi maila gorenera. Hernanin, Pegason, Cortebianco Bidebietan, Porriñon eta Akaba Bera Beran aritu da jokatzeko. Egun, eskubaloitik erretiroa hartuta dago 20 urtez baino gehiagoz eskubaloian aritu ondoren.

48. MIKEL ODRIUZOLA

1973ko maiatzaren 25ean jaio zen. Hastapenak Orereta Ikastolako atletismo taldean egin zituen, taldeak martxalari bat ebahr zuenez. Gero, Erreterriako Atletismo taldean (C.A.R) aritu zen.

Lehen urte haietan, atletismoa eta futbola konbinatzen zituen, kirol hau Beti-ona



eta Toruing-en, 16 urte zituela, ordea, kirola egiteari utzi zion.

Berehala emaitza onak lortu zituela eta, Donostiara joan zen entrenatzera. Han taldekide ospetsuak izan zituen: Kamel Ziani, Maria Luisa Irizar eta abar.

Urte haietan Errealak fitxatu zuen eta 13 urte pasa ditu taldean. Orain, Errenteriako Udaletxearekin akordio bat lortu eta gero berriro Errenteriako Atletismo taldera bueltatu da.

Lortutako emaitza onak zirela eta, 1996 Espainiako Federazioak beka bat eman zion eta Bartzelonara joan zen Goi-mailako zentro batera, eta han 8 urte pasa zituen.

Geroztik Mikelek palmares handia lortu du: Euskadiko errekor guztiak ditu; Espainako Txapelduna izan da bost aldiz 50 kilometrotan: (2001, 2002, 2003, 2005 eta 2006); 30 kilometrotan, berriz, Espainiako errekorra du.

Nazioarteko mailan, berriz, munduko 6. postua lortu zuen Osaka 07an, Europako Txapelketan 4. eta 5. na 1998an Budapesten eta 2005an Goteborgen eta Munduko Kopan 4. eta 5. postua lortu zuen 2006an Coruñan eta 2008an Cheboksaryn.

<http://www.mikelodriozola.com/eus/biografia.php>

<http://www.eitb.com/audioak/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/osoa/481376/lau-orduko-lanerako-burua-prestatuta-izan-behar-duzu/>

49. JAKINGO OTE ZENUKE...

JARDUERA1: Zer ikasi duzu?

JARDUERA2: Osatu gurutzegramak

Koadernoko 22. orrialdea.

MATERIAL OSAGARRIA

GEHIAGO JAKITEKO

BIBLIOGRAFIA

- BOZAS URRUTIA, E.: *Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan*, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones S.A, Donostia, 1976.
- ELBERDIN, Luis: *Orereta izena eta izana*, Orereta, 1995.
- ELBERDIN, Luis: *Hiria*, Orereta, 1995.
- GAMON, Juan Ignacio: *Noticias historicas de Renteria*, 1930.
- GOÑI GALARRAGA, Joxeba M.: *Historia de Renteria*, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1969
- SEVILLANO SEIN, José Luis: *C.D. Touring. Urteurrena 75 Aniversario*. Kutxa Fundazioa, Donostia, 1998.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Errenteriako Historia*, Errenteriako Udala.

IBILBIDEAK

ARENZANA, Txema: *Errenteriarri itzulia mugak jarraituz*, Errenteriako Udala, 2002, *Errenteria pausuz pausu*. Natura eta gizatzarna, Errenteriako Udala,

TRENAK

Bertan 10, Gipuzkoako Trenak. Gipuzkoako Foru Aldundia.

IBON ZABALA LIZARAZU

ZABALA, Ibon: *Bizi-Urratsen hitzak*, Orereta, 2000

IKUS-ENTZUNEZKOAK

LUENGO TELLETXEA, A.: *Errenteriako zuhaitz eta landareak*, 2004, CDa.

SAREAN

[ERREKAK, UR HORNIDURA ETA BESTE HAINBAT](http://webgunea.hurtzarroikastola.net/oiartzunibaia/)

<http://webgunea.hurtzarroikastola.net/oiartzunibaia/>

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra: XIII. INSTALAZIOAK ETA



AZPIEGITURAK

HERRIKO PARKEAK

www.errenteriaenverde.net

HERRIKO LANDAREAK: BELARRAK ETA ZUHAITZAK

www.errenteriaenverde.net/arboles-plantas/index.htm

AÑARBE

www.errenteria.info/aba/calendar.pdf

MALBAZARGO URMAELA

www.danborenelli.lacoctelera.net/post/2007/05/31/ur-igela

NATURAN HAINBAT IBILBIDE

www.errenteria.net/eu/html/38/981.shtml

www.errenteria.net/eu/html/38/1118.shtml

TRENAK

Bertan.gipuzkoakultura.net/eu/10/index.php

AUTOBUSAK

www.dbus.es/eus/empresa/historia

www.dbus.es/eus/empresa/galeria-fotos

HERRI KIROLAK ANTOLATZEKO AZALPENAK

www.egbjolasak.ulibarri.info/index.php?cPath=13_26

URDABURU MENDIZALE ELKARTEA

www.urdaburu.org

HIBAIIKA ARRAUN ELKARTEA

www.hibaika.com

BETI ONA FUTBOL TALDEA

www.betiona.com

ERRETERIAKO KLUB ATLETIKOA

www.atleticorenteria.com

EREINTZA ESKUBALOIA

www.ereintzaeskubaloia.com

OARSOALDEA IGERIKETA KIROL ELKARTEA

www.oike.comyr.com

TXAKURKROSA OARSOLADEAN

www.txakurkrosa.blogspot.com

ASOCIACION FOMENTO KULTURAL (XAKEA)

www.xakeweb.net